

2014ko Uztaila

K

Oñatiko Udalak 241. zila

KONTZEJUPETIK

'Aloña' herrira bidean

Juan Kruz Maitzegi iheslari politikoa Oñatira itzuliko da 40 urteren ostean

italde

TALDE ERAIKITZAILE - SUSTATZAILEA


OÑATIKO AUKERARIK HANDIENA

- San Martinen
 - Kurtzekuan
 - Kasablankan
- 3 logela + garaje itxia (190.000€)

PREZIO BEREZIAK!!

* zabal informazioa

Ramón Irizar kalea 2 • 20560 OÑATI • Tel. 943 782 707 • www.italde.com



Matrikula

uztailak 9tik 16ra

» Oñati gestio heziketa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Eskaintza akademikoa

Oñati Gestio Heziketa

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa

MGEP

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizazioak
- Automatizazioa eta Robotika Industriala
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktibitatearen Programazioa
- Mekatronika Industriala

www.mondragon.edu/ogh

info.enpresagintza@mondragon.edu

943 71 80 00

www.mondragon.edu/gohz

gohz.mgep@mondragon.edu

943 73 97 05







➔ Liburutegiko **BERRIAK**


Tel.: 943 71 61 11 | www.euskadi.net/katalogobateratua

Urtero bezala, udako oporren atarian liburu gomendagarrien gida argitaratu du udal liburutegiak, Aramaio, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eskoriatza eta Legazpiko liburutegiekin elkarlanean. Hizkuntza eta historia aldetik kalitate aipagarria duten 39 liburu eta bilduma jaso dituzte bertan, adinka sailkatuta.

Aurten, gainera, beritasun moduan, gomendatutako titulu bakoitzak argumentuari buruzko iruzkin edo komentario txiki bat darama alboan. Irakurgaiez gain, bosna CD eta DVD ere gomendatzen ditu gidak, adinkra sailkatu barik, ikus-entzunezkoen kasuan.

Biblioporrak Gida herriko ikastetxeetako neska-mutikoen artean banatu da, baina kontsultatu nah duenak udal liburutegian eskura dezake.

2 | Kontzejupetik | 241. zkia.



UDAL BERRIAK

- 4 Gutunak
- 5 Herritarren iritziak
- 6 Tokiko Gobernuari Galdezka
- 7 Talde politikoen iritziak
- 8 'Txantxi' a Oñatiko moneta soziala urrian jarriko da martxan
- 10 Atez atekoak urtebete Oñatin
- 11 Udal Berriak
- 14 Jatetxe eta tabernetako menu eta pintxo eskaintza euskaratzeko kanpaina
- 15 Ekintzaile eta autonomoei zuzendutako formazio tailerrak




GURE HERRIAN

- 16 Enpresa ekimenak: Berrerabili denda.
- 17 Enpresa ekimenak: Kalkene
- 18 Juan Kruz Maiztegi 'Aloña' iheslaria Oñatira itzuliko da ia 40 urte eta gero
- 20 Baso eta belardietako bioaniztasuna ulertzeko panelak jarri dituzte
- 22 Justizia Trantsizionalari buruzko biltzar berezia Lege Soziologia institutuan
- 23 Eguneroko estresa menperatzen ikasi
- 24 Bizikletaren txokoa
- 24 Zuazola institutoren historia liburuan





KIROLAK

- 29 Igeriketa ikastaroetarako izen-ematea
- 29 Arianne Burgos txapeldun gimnasia
- 31 Garcia eta Biain nagusi Torreauzon
- 31 Entrenatzaileak behar ditu futbol sailak



KULTURA

- 32 Euskal Herriko Eskolarteko Bertsolari Txapelketa irabazi du Maider Arregik
- 33 Antonino Ibarrondoren omeneguzko seilua eta postala atera ditu CECaK
- 33 M^a Luisa Maiztegi zenaren margolanak ikusgai daude kultur etxean
- 34 Agenda deialdiak
- 36 Klean egitaraua
- 38 Antxiñako Fotografia



iritziak



2014 eta 2015 urteetan ezte bazkaria gurean egiten duen **Etxe-Andi** bikote guztien artean, **Kanariar Uhartetara joateko bi bidai** * zozketatuko ditugu.

* penitziatu

Informatu zaitez!!

www.etxeandl.com

Tokiko Gobernuari Galdezka / kontzejupetik@oinati.net / 943 78 20 72



ARGINDAR HORNIDURA



Oñatiko gune batzuetan, konkretuki San Martinen, argindar horniduran 'pikoak' gertatzen omen dira sarri, eta ondorioz elektragailuak hondatzeko arriskua dago. Tekniko batek emandako azalpena. Iberdrolakoa duten guneetan, konstanteagoa omen da argindar fluxua, eta ez omen daukate halako arazorik. Hori hala den jakin nahi dut, eta arazoa konpontzeko neurriak hartu behar ote duen Udalak.



Argindar hornidura guztietan %7-rainoko aldakortasunak daude baimenduak eta horrelako egoerek inongo kalterik sorrarazi ez dezaten argindar gaina izan daitekeenetik behera zehazten dira. Egin izan dugun azterketetan gune guztiak betetzen dute aldakortasun eta gain tope hori, baina zalantzarik izanez gero Oñargira azaldu eta aparatu analizatzaile bat jartzen dugu esandako tokian astebetez eta aparatuak egindako neurketen arabera doitzen dugu indar emaria.

AHATEN URMAELA



Olakuako ahateen urmaelak garbitu beharra dauka. Gainera, lehen, kumeak jaiotzen zirenean Natur Eskolara eramaten zituen zaintzaile edo arduradunak, indartu bitartean. Orain berriz, jaitu ahala desagertu egiten dira, eta penagarria da.



Olakuako urmaelaren garbiketa protokoloa, maiztasuna eta lan taldea berriro genuen eta nabaritzen ari da hobekuntza. Laster egoera optimoan egotea espero dugu. Ahate jaito berrien inguruan hartuko ditugu hartu beharreko zaintza neurriak. Eskerrik asko!

OLAKUAKO SEMAFOROAK



Olakua auzoko semaforoaren kokapenaren desproporzioa dagoela uste dut. Olapoto aldean hiru daude, oso tarte txikian, jende gutxien dabilen lekuan. Aldiz, Maiztegiko etxeetatik Eteoko bidegurutzeraino, jende gehien dabilen lekuan, bi besterik ez. Tarte horretan beste semaforo bat komeniko litzatekeela uste dut, askoz ere jende gehiago ibiltzen baita aurrera eta atzera.



Semaforo horiek San Lorentzo eta Olakua auzoetako sarrera-ibibide nagusietarako bideak erregulatzen dituzte eta ondo daudela iruditzen zaigun arren kontsulta egingo dugu irisgarritasun eta segurtasun adituekin.

TOKIKOARI GALDEZKA

Tokiko Gobernuarentzako galdera, kexu edo kezka bat baldin badaukazu, bidali kontzejupetik@oinati.net helbidera

OLAKUA 1B, BAJUA
943 71 67 13
onati@nomasvello.com
www.nomasvello.es

UDAN ERE FOTODEPILAZIO
 SEGURO ETA ERAGINKORRA
 GURE SUN&SAFE
 TEKNOLOGIARI ESKER

Uda honetan 2 sesio/ zona fotodepilatzeagatik oparia ziurtatuta!

oposiziotik



Lourdes Idoiaga -EAJ

GIZARTE IRIZPIDEEN BEHARRA KONTRATAZIO PUBLIKOAN

Bizi dugun krisi egoera luze honek gizarte babes falta eta egoera larriak eragin ditu, bereziki langabeziak gora egin duelako. Egoera honek zenbait pertsonengan gizarte bazterketa eta familia eta pertsonen pobretzea ekarri du. Administrazio publikoek, inoiz baino gehiago, arazo honetaz jabetu eta gizarte ardura eta giza garapen jasangarria sustatu behar dituzte. Erabaki zehatzak hartu eta gehien sufritzen ari diren giza kolektiboei laguntzeko eta egoera larri horiek baretzeko eskura dituzten tresnak eta baliabideak martxan jarri behar dituzte. Erakunde publikoen konpromiso eta laguntzarik gabe ia ezinezkoa baitute aipatu giza taldeek bazterketa egoerak gainditzea.

Ildo honetatik, eskertzekoa da Urkullu Lehendakariak hartutako erabakia. Honen arabera, **zerbitzu eta obren kontratazio lehiaketetan parte hartzeko, enpresek zenbait Gizarte Irizpide bete beharko dituzte**: pertsonen %20a langabezian denbora luzez egondakoak, lan esperientziarik ez duten **gazteak, emakumeak, lan mundura egokitzeko zailtasunak dituzten pertsonak, gizartean txertatzeko laguntza behar dutenak, 45 urtetik gorako langabetuak** etab. izan behar dute.

[Eskertzekoa da Urkullu Lehendakariak hartutako erabakia. Honen arabera, zerbitzu eta obren kontratazio lehiaketetan parte hartzeko, enpresek zenbait Gizarte Irizpide bete beharko dituzte](#)

Euskadin eta Estatuan aitzindari izateaz gain Europako gizarte politiken ildotik doa Eusko Jaurlaritzak hartutako konpromiso eta erabakia. Gainerako Euskal Erakunde Publikoek ere bide bera jarraitzea da helburua, "Erosketa Publiko Arduratsua" delakoa martxan jarri eta gizarte irizpide eta irizpide jasangarri eta etikoak aplikatzeko.

Oñatiko udaletxean ere, aurreko legealdian, EAJ-PNVk proposatuta eta REAS-SETEM erakundearekin elkarlanean, aho batez onartu zen (2011.02.31ko udalbatzan) Erosketa Publiko Arduratsua gauzatzeko oinarri eta konpromisoa, hori garatzeko ekintza plana zehaztuz.

Egoera honen aurrean, EAJ-PNVtik oraingo udal gobernuari eskatu diogu Erosketa Publiko Arduratsuaren eredua indartu eta martxan jartzeko eta Eusko Jaurlaritzak ezarritako gizarte irizpideak txertatzeko Oñatiko eredura.

gobernutik



Leire Egaña - Bildu

ZORIONAK DENOI: MEREZI IZAN DU

Pasa den hilean gobernu onaz eta jaso beharko lituzken irizpide eta konpromisoez aritu zen jeltokien bozeramalea aldameneko zutabeen. **EAJren irizpide horien artean ez da agertzen herritarrekin hartutako konpromisoa eta emandako hitza betetzea.**

Justu orain urtebete Bilduko Udal Taldeak (alderdi ezberdinez osatu eta eraturako taldea), herritarrekin Herri Programaren bitartez hartutako konpromisoetako bat bete zuen: **hondakinen gaikako bilketa sistema eraginkorrena martxan jartzea.**

Kontziente ginen eta gara ohituretan aldaketak suposatu dituela baina lehengo azpimarratu nahi duguna **oñatiarrek erakutsitako ardura eta erantzukizuna da**. Ohitura aldaketa guztiek sortarazten dituzte beldur eta erresistentziak, baina lehen momentutik jakin izan dugu **tamainako erronkari tamainako erantzuna ematen**. Beraz lerro hauek herritar guztiei **ZORIONAK** emateko baliatu nahiko genituzke.

Urte beteko perspektibatik begiratuta, balorazioa ona da. **Alde teknikoak** hobetu beharreko aspektu batzuk identifikatzen joan gara urtean zehar eta **etengabeko hobekuntza izan behar da sistemaren oinarri.**

[Atez atekoari esker gaikako bilketa maila %24tik %79ra igo da, eta errefus sorrera 2.800 tonatik 1.150era jaitsi dugu](#)

Alde ekologiko edo gaikako bilketa mailari begiratzen badiogu, %24ko bilketa mailatik %79rainokora pasa gara eta errefus sorrera 2800 tonatik 1150 tonatara jaitsi dugu.

Alde ekonomikotik, udalaren ekarpena mankomunitateko ingurumen batzordera **742.000€koa izatetik 925.000€koa izatera** pasa da, baina kontuan izan behar da horietatik 213.000€ inbertsioetara bideratu direla eta **hurrengo ekitaldietan ez dela hainbeste beharko**. Bestalde gaika bilduta errekupekatzen diren ontzi arin eta paperengatik jasotzen diren **diru sarrerak biderkatu egin dira.**

Helburu sozialei erreparatuta ez dugu zalantzarik kontzientzia eta sentsibilizazio handiagoa pizteaz gain **lanpostu berriak sortzeko ere** balio izan duela sistema aldaketak.

Sistema aldatzeko erabakia hartu genuenean **honelakoak entzun eta irakurri behar izan genituen gobernu onaren lezioak eman nahi diguten EAJko kideen aldetik**: "Bildu= Zero Gardentasun", "Atez atekoa herrian eta zaborra buruan", "Bilduk zero konfiantza erakusten dio herritarri", "Bilduk bildurra die informatutako herritarrei", "...Gaur, datuak eskuetan pentsatzen dugu ama lurrarengatik eta herritarren osasunagatik merezi izan duela!!

KONTZEJUPETIK

ARGITARATZAILEA Oñatiko Udala **ZUZENDARIA** Iñigo Arregi
PUBLIZITATEA Aratz Losada **DISEINUA ETA MAKETAZIOA** Aratz Losada
KOLABORATZAILEAK Jerardo Elortza **SAILAK**
Etxagok Ama Begira (Gaztelekua) **INPRIMATEGIA** Gertu
TIRADA 5.500 ale **LEGE GORDAILUA** SS-357/91

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa • 20560 -OÑATI

Tel.: 943 78 20 72 • Faxa: 943 78 22 53

Posta-e kontzejupetik@oinati.net • **Publizitatea:**

publi@oinati.net



GUTUNAK

Gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Gutunarekin batera igorlaren izen-abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen-abizenarekin argitaratuko dira. Aldizkariak ez du bere gain hartzen GUTUNAK eta IRITZIA orrialdeetan adierazitako iritzien gaineko erantzukizunik.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 • OÑATI / Tel.:943 78 20 72 / Posta-e: kontzejupetik@oinati.net

Pilar Barrena Kortabarria

Jerardo Elortza

Fan xaku, ba, Pilar be. Bizimodu luzia euki dau, 91 urte. Baiña azkenera arte buru argi eta memorixa ikaragarrixaren jabe izan da. Horregatik sarritan jotzen geben harengana datu eta argibide billa gure aldizkari honetako artikulua idazteko orduan; Antxiñako fotografixia izeneko saillerako, batez be. Abildade aparta eukan argazkittako pertsonak ezaguketako, orain dala hirurogeita hamar urte edo lehenagoko erretratuak izan arren.

Pilar San Antue kaleko gaur egungo 12. numeruan jaixua zan, Etxe haundixan, berak esaten eben moduan. Gaztetan aldatu zan familiarekin Mendiko kalera. Kale-auzo bixetako oroitzapenak, pasadizuak eta pertsonen arpegixak bizi-bizi gordeta eukan bere buruan. Horretaz gain, eskolako edota herriko beste hainbat gorabehera be goguan izaten zittuan. Aitta Euliojo, arotza, Munazategiko semia zan; eta ama Jeronima, joskiña, Matromaiko alabia. Hori dala ta, Torreauso eta Zubillagako kontuak be ondotox ekixen. Eta gizona, Klaudio Biain, Murgixa auzoko Bixain baserrikua zanez, inguru hareittako albistiak be eskuraketan euskun.

Zorretan gagoz, benetan, emakume honekin, urte askuan gure informaziño-iturri zihatx eta aberatsa izatiagatik. Milla esker, Pilar.

Zorionak Oñati

Irati Eguren, Oñatiko Gure Esku Dagoren izenean

AZorionak Oñati. Elkarri zorionak emateko moduan gaude, ekainaren 8an ekarpen ederra egin genuelako Durango eta Iruñea eskuz esku erabakitze eskubidearen alde lotzeko. Ederra izan zen batzen gaituen horren alde elkarri eskua ematea, eta handia elkar hartuta egin dugunak sortu duen ilusioa, etorkizunerako eredu eta lagungarri izango zaiguna. Erabakitze eskubidea gauzatu ahal izatea utopia izan zitekeen zenbaiten begietara, baina

guretik gertu, European bertan, gertatu egingo da irailean, Eskozian. Eta geu ere has gaitezke irudikatzen, ikusten; Eskozian posible dena, gurean zergatik ez? Gakoa geuregan dago. Ez gure egon behar batzuek edo besteek erabakitze eskubidea gauzarazteko bidean egin dezaketaren zain; herritarren garaia da, jarrai dezagun geurea egiten. Bidea hasi dugu, eta hori da bide zuzena, herritarren bidea. Sinistu dezagun, eta elkar hartuta lanean jarraitzen badugu berandu baino lehen sortuko da geurean ere aukera, sortaraziko dugu.

Oñatiko GURE ESKU DAGO kuadrillari

Koldo Zumalde Barrena

Ez dut ezer esango ekainaren zortziko giza kateaz; gure neuronetan betiko. Baina horrelako ekintza erraldoi batek atzetik lan itzela izaten du; eta hori bai, hori esan egin behar dugu: eskerrik asko, zorionak. Hartu arnasa, eta jarraitu zuen lan isilarekin.

Demokrazia parte hartzaileaz

Jone Arrazola Maiztegi

Martxoak 8. Emakume Langileen Askapenaren Aldeko eguna. Donostian PPko kongresuan Rajoy-ren hitzaldia eten genuen gure gorputzaren gainean erabakitze eskubidea defendatzeko eta indarrean jarriko den abortuaren kontrako lege erreforma

salatzeko. Salaketa ekintza baketsua eta legitimoa izan zen herritarren gehiengoarentzat. Inposaketa, berdin pentsatzen ez dutenak isilarazi nahia, hitzezko indarkeria edota "hemen nik agintzen dut" adierazteko nahitzat kalifikatu zituen ordea Espainiako eskuin muturreko prentsak.

Ekainak 16. Josu Erkorekak, Oñatin eman zuen hitzaldiaren aurrean Mugitu AHT plataformak, eta ez ezker abertzaleak, kontzentrazio zaratatsua deitu zuen EAJ bultzatzen ari den AHTaren erakuntza salatzen. Honen aurrean Oñatiko EAJk Espainiako eskuin muturreko prentsaren argudio berberet jantzi zuen Goienkarira eskutitza.

Erkoreka edo beste edozein txalotzea bezain zilegi da AHTaren erakuntza salatzea. Kudeaketa gaitasun falta leporatzen duenak, ez luke euskaldunek Espainiara bidalitako diruaren zati bat gure herrian gastatzea lorpen moduan izendatu behar. Eta are gutxiago, 13 milioiko unibertsitaterak erakuntzei ezin eman daiteke oihartzunik, ezkutuan, 10.000 milioi AHT eraikitzen gastatu nahi direnean.

Bakoitzak bere ikuspuntua adierazi beharra dauka, ados gaudenetan elkarrekin lan egiteko betebeharra izanik eta ez gaudentan, debate soziala bultzatuz. Eta mende, protesta ekitaldi bateko zaratak isilarazi dezakeena larria irudikatzen bazaigu, hasi gaitezen onartzen Erkorekaren gobernuak zuzentzen duen EITBk, euskal gizarteko lehen lerroko gai batzuei ematen dien trataera guztiz partziala zilegi ote den komunikabide publiko batean.

Gure herriaren etorkizunean denok dugu zer esan eta zer egin. Horregatik, agintariak txalokatzea edo kritikatzeko naturaltasunez egin beharreko ariketa izan beharko litzateke normalizazio egoeran.

► Emakumeen Bira

Munduko emakume txirrindularirik onenak ikusi ahal izan genituen Oñatin ekainaren 13an. Kirol ikuskizun ederra izan zen. Emakumeen Biraren harri Udalak antolatutako logo lehiaketa Arianna Burgosek irabazi zuen, eta etapako irabazle Marian Vos-ek sinatutako mailota jaso zuen opari.



► Errekaldeko jaietako zenbaki sarituak

Errelañdelp jaietan sarituak ateratako zenbakiak hauek izan dira: 1. saria: 1445 (0804); 2. saria: 4848 (2302); 3. sariak: 3525 (3565) eta 3013 (1359). Parentesi artean ordezkoko zenbakiak. Bestalde, auzoko Mus txapelketako Felipe-Jexus bikoteak irabazi zuen.



Turismo hitza frantsezeko "Tour" hitzetik omen dator, XVI. mende bukaeran batez ere Britainia Handiko klase altuetako gazteek beraien ikasketak Europan zeharreko bidaia batekin betetzen zutelako. Ezin esan gaur egun turismoa egiten dutenak klase altukoak bakarrik direnik, estatu garatueta biziaren parte handi batek bidaiatzeko ahalmena lortu du eta.


Turistak etorkinen fenomenoaren beste aurpegia dira. Biak dira lurralde batetik besterako giza desplazamenduak; baina bakoitzak arrazoi ezberdina du atzean, eta paradoxikoki, aldi berean, gertakari baten espresio ezberdinak dira biak. Batzuk bizirik iraun dezaten aldatzen dira tokiz; besteak beraien bizitzako denbora "librea" betetzeko mugitzen dira.

Irizpide kapitalisten arabera ekonomikoki garatua den Estatu bateko biztanleak garen neurrian, etorkinen problematika hau gu parte garen gizartearen perspektiba historikotik ikusi behar da. Zergatik garatu gara? Zergatik garatu dira hain gutxi, beste Estatu batzuk?

Azken 500 urtetan gertatutakoak azaltzen digu guzti hau, neurri batean. Europako zenbait estatu munduko inperio bihurtu ziren Erdi Aroaren ondoren, Gaztelako Erreinuak sorturiko Espainiar Estatu buru zela. Euskal

TOURISTAK

Aimar Uribealgo



“[Gobernuz kanpoko erakundeen laguntza ere ahuntzaren gaurdiko eztula da, eta hori soluzio bezala aurkeztea krimen ideologikoa](#)”

gizartea ere ez zen kolonizazio fenomeno horretatik at gelditu; lehenengo indarrez menperatua izan zen, ondoren mundu osoko Espainiar kolonien ustiakuntzan parte hartu zuen.

Militarki eraman izan dira kolonizatutako lurraldeetatik Estatu kolonizatzaileetara baliabide naturalak eta lan ahalmen —izan esklabo formatuan, izan soldatapekoan— merke ekoiztutako ondasunak. Taktika militarren ondoren, efizientzia ekonomikoa hobetze aldera edo —izan ere indarraren legeak oposizio bat sortu dezake lana egiten dutenengan—, merkatuaren “esku ikusezina”

izan da aberastasunaren eta ondorioz garapenaren polarizazioaren sortzaile.

Gaur egun Estatu garatuak bidaltzen dituzten “laguntza humanitarioek” zapalkuntza —militar, ekonomiko, mediatiko— hau makillatzea dute xede, ez beste ezer. Gobernuz Kanpoko Erakundeek laguntza ere ahuntzaren gaurdiko eztula da, eta hori soluzio bezala aurkeztea krimen ideologikoa.

Etorkinen problematikaren sustraletara joan nahi izateak, ez du arazoa egun batetik bestera konponduko. Diskurtso intelektual jaso askoak idatz ditzakegu, baina horiek ez diete epeltasunik emango kale gorrian dauden Estatu zapalduetako “turistei”. Lan ahalmena merkantzia bat den bitartean, ezer gutxi egin dezake kapitalismoak etorkin hauen beharrak asetzeko orduan, bertako langileon beharrak asetzea ere ez baitu lortzen. Soluzioa? Lana banatu, hezkuntza sistema irauli etorkinen integrazioan guztiok parte hartzeko, etxebizitzak guztion jabetza bihurtu, ekonomia erradikalki demokratizatu, etab. Eta hori lortu bitartean zer? Etorkinak gure atari ondoan egingo dute lo, eta guk argazkiak aterako dizkiegu beraien familiei, izan Bolivian, izan Nigerian, izan beraiei ostutako guzti horri esker bidaiatu dezakegun munduko hamaika izkinatan.

Asko maitte dut Canetti idazlea. Bulgarian jaioakoa, 1905. urtean. Bere gurasoak, judutar sefardiak. Txikitan, Manchesterren, gero Suitzan eta gaztetan Vienen bizitakoa. Handik, Alemaniako nazien erasoetatik Parisera alde egin beharra izan zuen. Azkenean, Zurich-en kokatu zen. Literaturako lan bikainak oparitu dizkigu. 1981ean Nobel Saria jaso zuen.

Canetti, gizon ttikia, irribarretsua, sakona, zehatza, agortezina, nekaezina, iheskorra bai, baina berarengana hurreratuz gero, xaloa eta goxoa. Bizitzak bere ibilbide luzean sortzen dizkigun kezka eta arazo askoren aurrean zorrotza izan da.

Bere "Apuntes" eta "El suplicio de las moscas" liburuetan (oraindik, euskaratu gabeak) argitaratuak dituen pentsamenduek, aforismoek, testutxoek eta galderen erantzunek edozeineri on egingo dio seguruenik. Horregatik, bere zenbait "apuntes" aukeratu ditut oraingoan, zutabe edo lekutxo honetara ekartzeko.

Bere lan oparoan, gaztaroan eta helduaroan ditugun kezkei buruzko gai zabala aurkezten digu aurrean: **gure munduaren kreazioa, heriotzaren onar ezina, zahartzaroa, Jainkoa, gerra, gizakia, animalien gaitasuna, sufrimendua, erlijioak...**

Canettik sentitu, hausnartu, barrenetik

ELIAS CANETTI

Bittor Madina



“[Bere lan oparoan, gaztaroan eta helduaroan ditugun kezkei buruzko gai zabala aurkezten digu: munduaren kreazioa, heriotza, zahartzaroa, gerra, Jainkoa, animaliekiko maitasuna, sufrimendua, erlijioak...](#)”

atera eta idatzitako "Apunte labur" batzuk doazkizu jarraian. Beharbada, noizbaiten, zeuri ere antzerako zeozer bururatu izan zaizu.

• **Jainkoak mozolokeria ("gansada") galanta egin zuen mundua sortu zuenean.**

• Benetan merezi izan zuen gizakia asmatzeko? Ez zegoen beste modurik Lurra pikutara bidaltzeko? • **Eta Jainkoak, heriotzaren aurrean lotsatuta, Kreaiziotik ospa egin bazuen?**

• Arma guztiak deuseztatu egingo dira eta hurrengo gerran hozka egitea baino ez da onartuko. • **Besaulkietan eseri eta otorduak**

mahaian egiten dituztenetik, gerra luzeagoak egiten dituzte. • Biluzik egin behar izango bazeniotte aurre batzuok besteoi, zailagoa izango litzazueke elkar hiltzea.

• **Zein izan da animalien jatorrizko bekaketa? Eta zergatik jasan behar duen animaliek heriotza?** • Aurkikuntza lazarria benetan: animaliek ere badute heriotzaren kontzientzia. • **Neure bizitzaren urte batzuk emango nituzke aldi labur batean animalia izatearren.** • Animalien eskuratu ezin duguna: nola ikusten gaituzten jakitea. • **Eta animaliek lortuko balute azkenean guregandik aske izatea?**

• Madarikatu egiten dut heriotza. Ezin dut saihestu. Eta ikusmena galdu beharko banu ere, ezin dut saihestu, uko egiten diot heriotzari. Hiltzaile bihurtuko nintzateke ezagutuko banu. • **Heriotza existitzen den heinean, ez dago umiltasunerako lekurik.** • Ez nuke hil nahi gutxienez sinesmen guztiak amestu gabe.

• **Berak jainko gorra bilatzen du, gogoak ematen diona otoitz egiteko.** • Bateria batek begi txarrez begiratu zaituela antzematen baduzu, ikertu lehendabizi zer izan zen zuregan gustuko izan ez zuena. Beharbada arrazoi zuen. • **Lagun bat elkarrekin arnasa hartzeko.**


Canettik azken arnasa 1994ean eman zuen.

TXANTXIA

Oñatiko moneta soziala urrian jarriko da martxan

► Udalak eta herriko merkatariek osatutako mahai teknikoak moneta berriaren funtzionamendu arauak adostu ditu

► Proiektuan parte hartu nahi duten komertzio, ostatu eta zerbitzu arloko establezimenduek uztaillean eman behar dute izena



TXANTXI BATEN ADIBIDEA.

Ezkerrekoaren antzekoak izango dira Oñatiko txanpon berriak. Billete-paperean inprimatuko dira: 50 zentimo, eta 1, 5, 10 eta 20 txantxiko biletetik egongo dira, eta bakoitzak irudi ezberdin bat izango du, Aurrealdean segurtasun barra izango dute biletetik; atzeko aldean ikusten diren espazio txurietan berriz, irautgitze edo kaduzidade-data adieraziko da.

Billete batek aurrealdek eta atzealdek izango duen itxuraren adibidea.

Herriko merkataritza eta ekonomia sustatzeko asmoz 'TXANTXI' izeneko tokiko moneta jarriko du martxan Udalak urriaren 1etik aurrera. Oñatiko herritarren gastu-ihesa mugatu, eta kanpotik herriko enpresetara egunero lanera datozen pertsonen Oñatin egiten duten gastua suspertzea da ekimen honen helburua. Horretarako herriko kooperatiba eta enpresek ekimen honekin bat egin dezaten ahaleginduko da Udala.

Gainera, herriarentzako onura soziala ere ekarriko du moneta berriak, Txantxien erabilerari esker gizarte funts bat eratuko baita proiektu solidarioak bultzatzeko.

Udaleko ordezkari politiko eta teknikoek, herriko hamar merkatarik eta aholkulari teknikoek osatutako lantaldeak adostu ditu moneta berriak izango dituen funtzionamendu arauak.

Orain, hilabeteko epea (uztaila) zabaldu du Udalak, ekimen honekin bat egin nahi duten dendari, ostalari eta zerbitzu arloko profesionalak izena eman dezaten. Proiektura atxikitzen diren establezimenduek urtebeterako konpromisoa hartu beharko dute.

Almaraz
Inmobiliari gestioa

Tel: 679411444 | www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz
inmobiliari-gestorea | Bitartekari zibila

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, **dei** iezaguzu".

Webgune berritua!!

TXANTXI: Oñatiko txanponaren ezaugarriak eta funtzionamendua

Nondik sortzen da Txantxia?

- Udalak, herriko merkatariekin eta lkertalde enpresarekin batera, Oñatiko Merkataritza Biziberritzeko Plana egin zuen iaz. Bertan, besteak beste, tokiko moneta bat sortzeko aukera jarri zen mahai ganean, oñatiarren gastu-ihesa mugatzeko helburuarekin.
- Udala Txandarekin eta herriko merkatariekin bildu zen eta proiektua aurrera ateratzeko mahai tekniko bat osatu zen. Beste herri batzuetan martxan dauden moneta sozialen esperientziak aztertu ondoren, Oñatirako eredia prestatu dute.

Zer lortu nahi da?

- Kontsumoa fidelizatzea eta herritarren gastu-ihesa mugatzea lortu nahi da. Horretarako, 'Txantxi'ak erosten dituzten herritarrei onura komertzial batzuk aplikatuko zaizkie.
- Bestalde, Udalak injekzio edo ekarpen inportantea egingo dio sistemari. Aurrerantzean Txantxi-tan ordainduko ditu urtean zehar ematen dituen sariak, eta arrazoi ezberdinengatik (familia ugariak, autokonposta...) aplikatzen dituen hobariak. Gainera, proiektua abian jartzeko, udaletxeko langileek Txantxitan jasoko dute soldataren zati bat (%1,5) eta, beraz, ekimen honetara atxikitako saltokietan gastatu beharko dute.

Enpresen partehartzea

- Proiektu honen beste helburuetako bat da, egunero herriko enpresetara datozen kanpoko pertsonak Oñatin egiten duten gastua suspertzea. Horretarako, herriko enpresak proiektu honetan inplikatzeko bilatuko da, ekarpen ekonomiko zuzena eginez gizarte fondora, edo Txantxi kopuru bat erosi eta langileen eskura jarritz Gabonsari moduan, edo soldataren zati bat Txantxitan ordainduz, hala nahi dutenei.

Gizarte funtsa

- Herriarentzako onura soziala ere ekarriko du moneta berriak. Txantxien erabilerari esker diru-poltsa bat osatuko da elkartasun proiektuak garatzera bideratuko dena.

Ze ezaugarri izango ditu Txantxiak?

- Udalak sortuko du moneta, eta bera arduratuko da funtzionamendua kudeatzeaz. Truke-bulego bat egokituko du, Txantxiak erosi edota eurotara trukatu ahal izateko.
- 'EURO 1 = TXANTXI 1'. Horixe izango da balioikidetasuna edo kanbio-tasa, Txantxiarekin egindako erosketetan.
- Bilete-paperan inprimatuko dira Txantxiak; **50 zentimo**, eta **1, 5, 10** eta **20 euroko** bileteak egongo dira. Moneta txikiagoko kanbioak eman behar direnean, euro-zentimotan eman ahal izango ditu merkatariek.
- Edozein herritarrek erosi ahal izango ditu Txantxiak. Erosketa bakoitzean gutxienezko kopurua 20€koa izango da, eta gehienez 500 €-ko erosketa egin ahal izango du erabiltzaile bakoitzak hiru hileko.

Zein abantaila eskaintzen ditu?

- Txantxiak eskuratu edo erosten dituzten herritarrek %5eko saria jasoko dute; adibidez, 100 euroren truke 105 Txantxi eskuratuko dituzte.
- Horrez gain, proiektura atxikitako establezimenduek tokiko moneta erabiltzeagatik aplikatu ditzaketen deskontu osagarri eta eskaintza berezietatik aukera izango dute erabiltzaileek.
- Merkatariei eta ostalariei, bezero berriak erakarri eta emaitzak hobetzeko aukera eskainiko die.
- Enpresei, herriarekiko eta bere langileekiko duten gizarte konpromisoa ikusgarri egiteko aukera.



Bibito aldean 'Ekhi' txanpona daukate

Iraungitze data izango du Txantxiak

- Monetaren zirkulazio handiagooa sustatzeko neurri gisa, Txantxiak iraungitze edo kaduzidade-data izango dute, billetearen atzealdean adieraziko dena.
- Urtean lau iraungitze data ezarriko dira; hiru hileko bakoitzeko bat. Epe hori amaitu ostean erabiltzaileak ez baditu bere Txantxiak erabili, iraungitze-data berri edo eguneratu egin beharko du truke-bulegoan, eta horrek penalizazio txiki bat izango du: billetearen balioaren %3koa. Modu horretan batutako dirua gizarte fondora bideratuko da.
- Merkatariek 15 egun gehiago izango dute billeteen iraungitze-data eguneratzeko.

Txantxiak euroekin trukatzeko

- Proiektuan parte hartzen duten establezimenduek nahi duten unean aldatu ahal izango dituzte Txantxiak Euroen truke.
- Truke-salmenta horretan, Txantxiak duten balore globalaren %3ko 'tasa' edo 'deskontua' aplikatuko zaie merkatariei, erabiltzaileei ematen zaien hobaria (%5) konpentsatzeko mekanismo gisa.
- Erabiltzaile edo kontsumitzaileek ezingo dituzte beraien Txantxiak euroekin trukatu, proiektua indarrean den bitartean; beraz, gastatu egin beharko dituzte erositako Txantxiak.

Segurtasuna, bermea eta konpromisoak

- Zirkulazioan jarriko diren Txantxiak segurtasun gailuak izango dituzte. Txantxi/euroak erosi/saltzen direnean hartze-agiri baten bi kopia dokumentatuko dira.
- Proiektu honek jarraipena izatea aurreikusten bada ere, urtebeteko frogaldia egingo da. Parte hartzen duten merkatariek urtebetetako konpromisoa sinatu behar dute. Proiektura atxikitzen diren establezimenduen zerrenda publikoa izango da eta bereizgarri baten bidez identifikatuko dira.



Udala eta Zero Zabor taldeko ordezkariak Lazarraga parkean egindako prentsaurrekoan

Bilketa selektiboa %24tik %79ra igo da atez atekoarekin

► Atez atekoaren lehen urtebetetzean balorazio oso positiboa egin du Udalak, eta zoriondu egin ditu herritarrak “beraien ahalegina eta jarrerara arduratsuagatik”

Uztailaren 1ean bete da urtebete Oñatin atez ateko bilketa sistema abian jarri zenetik, eta udal gobernu taldeak oso positiboki baloratu du lehen urteko ibilbidea. Hondakinen bilketa selektiboan %79ko tasa lortu dela azpimarratu zuen

Leire Egaña Ingurumen batzordeko buruak, eta hori herritar guztien ahalegina eta jarrera arduratsuari esker lortu ahal izan dela goraipatu nahi izan zuen.

Horregatik, herritarrei eskerrak emanez hasi nahi izan zuen Egaña atez ateko-

araen urtebeteko balorazioa egiteko prentsaurrekoa. “Ez da urte erraz izan, ohitura batzuk aldatu behar izan ditugulagko. Horregatik azpimarratu nahi dugu oñatiarrek erakutsitako ardura eta erantzukizuna. Ohitura aldaketa guztiak sortarazten

dituzte beldurrak eta erresistentziak, baina lehen momentutik jakin izan dugu tamainako erronkari tamainako erantzuna ematen. Beraz, herritar guztiak zoriondu nahi ditugu, ezer baino lehen”.

Birziklapena gora

Datuei erreparatuz, birziklapen tasan eman den igoera handia azpimarratu zuen Egaña; atez atekoa jarri aurretik %24koa zen bilketa selektiboa, eta azken urte honetan %79koa izan da”. Atez ate jasotzen diren atalak eta beira hartu dira kontuan datu hauek kalkulatzeko, eta industria, komertzio, landalurra eta herritarren bilketa daude bertan sartuta. “Garbigunera eramaten diren hondakinak kontuan izanez gero, %82tik gorako bilketa mailara iritsiko ginateke” gaineratu zuen Egaña.

Errefusa edo birziklatzen ez den hondakin atalaren sorreran izan den beherakada ere azpimarratu zuen Egaña; 2013ko uztailetik 2014ko maiatzera 1.150.000 kilo errefusa sortu ditugu, eta aurreko urtean (2012ko uztailetik 2013ko ekaina amaiera arte) 2.821.414 kilo.

Datu ekonomikoak

Arlo ekonomikoan, bilketa sistema berriak martxan jarri direnetik Udalaren ekarpena mankomunitateko Ingurumen batzordera %25 hazi dela azaldu zuen Egaña; “2010ean, ezarpen berriekin hasi aurretik 742.000€-koa izan zen Udalaren ekarpena, eta 2013an 925.000€-koa. Baina argitu behar da, 2013ko ekarpenetik zati handi bat (213.000 euro) inbertisioetara bideratu dela,

**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkartearen administrazioa
- Konponketa orokorrak

653 70 45 47
Oñati

GAK
Garbiketa Administrazioa

**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

ERREFUSA

Birziklatzen ez den hondakin atala asko jeitsi da; azken urte honetan 1.150.000 kilo errefusa sortu ditugu, eta aurreko urtean 2.821.414

(kamioi berriak, zintzilarioak, beste heri batzuetan jarri diren edukiontzia...) eta 2011ean aldiz, 17.500 euro bakarrik bideratu ziren inbertsioetara”.

Orain arte mankomunitateko herri guztien artean

banatu da bilketa sistema berrien ezarpenak eragindako kostea, baina datorren urtetik aurrera heri bakoitzarena bereizten hasiko direla azaldu zuen Egañak.

Etengabeko hobekuntza

Arlo sozialari erreparatu, atez atekoarekin lanpostu berriak sortu direla adierazi zuen Egañak, eta, gainera, helburu pedagogikoak ere bete direla; “guztiok gara orain kontzienteago sortzen dugun zaborraren arazoaren inguruan, eta merezi duela hondakinak bereizten egiten dugun ahaleginak”.

Alde teknikoetik begiruta, Egañak esan zuen urtean zehar hobetu beharreko aspektu batzuk identifika-

tzen joan direla, eta aurrera begira ere sistema etengabe hobetzen jarraitzeko asmoa dutela.

Haizeak eragin ditu arazo gehien, eta horri aurre egiteko zintzilarioetan gomak jartzea erabaki zuen Udalak. Hala ere, hori ez omen da nahikoa zenbait gunetan, eta, beraz, haizeak gogorren jotzen duen lekuetan pantaila moduko batzuk jarriko dituzte ontziak babesteko, Egañak aurreratu digunez.

‘Zero Zabor’en balorazioa

Zero Zabor taldeko ordezkariak ere parte hartu zuten prentsaurrekoan, Udalarekin batera antolatuta duten Zero Zabor Astea aurkezteko. Hasi aurretik Imanol Biainek

zoriondu egin nahi izan zituen herritarrak, erronka honi gogoz eta ardurarekin erantzuteagatik. Udala ere zoriondu zuen Biainek, atez atekoarekin egindako apustuagatik.

“Norabide egokian goaz, baina oraindik ere zeregin ugari daukagu” esan zuen Biainek. Sentsibilizazio lana eta, batez ere, ezagutzaren garrantzia azpimarratu zuen. “Zenbat eta gehiago jakin herritarrek, orduan eta gogo gehiago izango dute arduraz jokatzeko”. Industria mailan ere zer aldatu ugari dagoela esan zuen Biainek, besteak beste enbaleak gutxitzeko, eta horretarako legedia zorrotzagoak aldarrikatu zituen. ■

ZERO ZABOR ASTEA

Atez atekoaren urtemuga ospatu eta kontzientzia areagotzeko, hainbat ekintza antolatu ditu Oñatiko Zero Zabor taldeak Udalarekin batera. Ekitaldi horietako batzuk burutu dira, baina asteburu honetarako beste bi ekitaldi interesgarri antolatu dituzte:

Lapatxeko konpostatze plantara bisita**UZTAILAK 5, LARUNBTA**

Lapatxeko konpostatze plantara bisita gidatua. Hondakin organikoa nola tratatzen den eta zein irtenbide ematen zaion ikusteko aukera egongo da. Udaletxeko sarreran edo marrazola@oinati.net helbidean eman daiteke izena. Irteera, goizeko 10etan postetxe aurrean (dohainik).

**Araotzeko kontrol gabeko zabortegia garbitzeko auzolana****UZTAILAK 6, IGANDEA**

Jaturabetik geratu dagoen kontrol gabeko zabortegi zahar bat garbitzeko auzolana egingo da. Ondoren bazkaria Araotzeko auzo-etxean (bazkarirako aurrez izena eman behar da larunbaterako). Foru enparantzan elkartuko gara goizeko 9etan.

HONDAKINEN INFORMAZIO BULEGOA
Olakuako dorrean egongo da hileko lehenengo eta hirugarren astelehenetan

Hondakinen informazio bulegoak Kale Zaharreko 12 zenbakian du bere egoitza, baina Olakua, San Lorentzo eta Ugarkaldeko bizilagunei zerbitzua gerturatzeko asmoz, hemendik aurrera, hileko lehenengo eta hirugarren astelehenetan Olakua dorreko behe solairuan egongo da: UZTAILAK 7 eta 21, ABUZTUAK 4 eta 18, IRAILAK 1 eta 15, URRIAK 20, AZAROAK 3 eta 17, eta ABENDUAK 1 eta 15.

**OHARRAK:**

Uztaila eta abuztuan goizez (09:00-15:00) bakarrik egongo da zabalik bulegoa. Goian aipatutako egun horietan Kale Zaharreko bulegoa itxita egongo da



ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezaio Ind. 10
Tel. 943 70 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 70 02 21

BUNALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

OPARITU EMOZIOAK

- Pixoihal tartak
- Gosariak txex txex
- Erakusketa (Kale Barria 30)

Tel.: 663 764 511

www.cesasyregalosadomicillo.com





EROSKETA BONOEN kanpaina irailaren 30erarte luzatuko da

► 25 euroko balioa duten bonoak 20 eurotan eskura daitezke udaletxean

Saltoki txikiei laguntzeko asmoz Debagoieneko mankomunitateak abian jarritako erosketa bonoen kanpaina irailaren 30era arte luzatuko da. Hala, herritarrok 25 euroko balioa duten bonoak 20 euroren truke eskuratu ahal izango ditugu udaletxean. Falta diren 5 euroak Mankomunitateak jartzen ditu.

Erosketa bono hori kanpainara atxikitutako establezimenduetan gastatu ahal izango dugu. Oñatin, oraingoz 27 komertzio egin dute bat kanpainarekin, eta eskualde osoan 99k. www.debagoiena.net webgunean dago ikusgai zerrenda eguneratua.

Debagoiena osorako 2.000 erosketa bono atera ditu Mankomunitateak, eta horietako 300 Oñatira ekarri dituzte. Herritar bakoitzak bono bakarra erosi ahal izango du

Iturriko uraren kontsumoa sustatu nahi du Udalak hondakinak murrizteko

'EDAN ITURRIKO URA' izeneko kanpaina jarri du abian Udalak, ostalaritzako hondakinak murrizteko helburuarekin. Plastiko edo kristalezko botiletako ura erabili ordez, grifoko edo iturriko uraren kontsumoa sustatu nahi da.

Hala, eguneroko menuak ematen dituzten herriko taberna eta jatetxeei gonbitea luzatu die Udalak, bezeroak ura eskatzen duenean pitxar batean atera dezaten.

Neurri hau aukerakoa da, noski, eta ez da aplikatuko bezeroek barran eskatutako ur botilatxoaren kasuan. Ekimenarekin bat egiten duten ostalduerak kanpainaren logoa duten pitxarrak banatuko dizkie Udalak.



Eguneroko menuak ematen dituzten taberna eta jatetxeei gonbitea luzatu die Udalak, bezeroak ura eskatzen badu pitxarretan atera dezaten, botilakoa erabili ordez

Garapenaren aldeko lankidetzarako 95.000 euro banatuko ditu udalak

Udalak 95.000 euro bideratuko ditu aurreko garapenaren aldeko nazioarteko lankidetzarako. Zatik handiena, ia 90.000€, garapen bidean dauden herrietan gobernu kanpoko erakundeek nahiz partikularrek babesten dituzten elkartasun proiektuetara bideratzen da. Gainerakoa, 5.550€, Oñatin bertan egingo diren sentsibilizazio ekintzetan gastatuko da. Uztailaren 7a baino lehen aurkeztu behar dira eskaerak udal bulegoetan.

Bestalde, Udalak 11.700 euro banatuko ditu gizarte zerbitzuen arloan lan egiten duten elkarteetara. Hauek ere uztailaren 7a baino lehen egin behar dute eskaera.



Esker ona Oñatiko udalari

ACOES gobernu kanpoko erakundearen sortzailea den Padre Patricio Larrosaren bisita jaso du alkateak berriki. Granadako da sortzez baina Hondurasen bizi da azken 22 urteotan Padre Patricio, pertsona desbabestuen alde, batez ere haur eta adineko pertsonen alde lanean. Oñatiko Udalaren laguntza jaso du bere proiektuetako batzuk aurrera ateratzeko, eta eskerrak eman nahi izan dizkio Udalari.

- Instalazio elektrikoak
- Exetresna elektrikoaren konponketak

Jose Moyua kalea 16, behea • Tel./Fax: 943 78 23 10
Mug. 615 74 94 94 • 20560 OÑATI

MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

Berdintasunaren aldeko txapak

Normalean azaroaren 25aren inguruan antolatzen du Udalak pegatina edo bideoklip lehiaketa herriko ikasleen artean, berdintasunaren alde eta genero indarkeriaren aurka sentsibilizazio lana egiteko asmoz. Aurten, emakumeen Euskal Birako etapa bat Oñatin jokatzeko zela kontuan hartuz, udazkeneko lehiaketa aurreratzea erabaki du udal Berdintasun sailak, eta 'txapa' edo paparrekoen lehiaketa antolatu du LHko 5. eta 6. mailako ikasleen artean, kirol ekitaldi horren atzean ikuskizun bat ez ezik, aldarrikapen bat ere badagoela azpimarratzeko. Ondoko argazkian ikusten den irudia izan da aukeratua, eta irudi horrekin egindako txapak udal zerbitzu ezberdinetan daude eskuragai.



1. saria: Txantxiku ikastolako 6. maila A



2. saria: Urgain-Errekaldeko 5. maila



San Migel jaiei atarian txapa sorta berria aterako ditu udalak.



3. saria: Urgain-Errekaldeko 6. maila

Abian dira Udaleku Irekiak 351 neska-mutikorekin

Uztailarekin batera abian dira Udaleku Euskara sailak Txatxilipurdi elkartearekin elkarlanean antolatu dituen udaleku irekiak. Aurten 4 eta 10 urte arteko 351 neska-mutikok eman dute izena, eta hauek zaindu eta dinamizatzen 41 begirale eta 3 koordinatzaile ari dira. Uztailaren 24a bitartean goizero (10:00-13:00) ibiliko dira jolasen, eskulanetan, kantuan eta lagun berriak egiten. Euskaraz betiere, horixe baita helburu nagusia, alegia, haurrei euskarazko aisialdi hezitzailea bermatzea.

Adinaren arabera ekintzak izango dituzte (uraren egunak, altxorraren bila, gure moda sortu, mitologia eguna...), baina umeei aukera emango zaie programazioan aldaketak egiteko. Dena den, haur guztientzako egun komunak ere izango dituzte: **'Zikinarene eguna'** (uztailak 3); **'San Ferminak'** (uzt. 8, foru enparantzaren); eta **'Munduko jolasak'** (uzt. 14). Udalekuei agur esateko **'Apar festa'** egingo dute uztailaren 24an foru enparantzaren.

ARTE UDALEKUAK

Iaz bezala aurten ere Arte Udalekuak antolatu ditu Gaztelekuak 12 eta 16 urte arteko gaztetxoentzat. Hauek marrazketan eta eskulturan trebatzeko aukera izango dute.

Erreken inguruko argazki eske

Ura eta erreken inguruko sentsibilizazio kanpaina egingo du Mankomunitateak urrian. Besteak beste, argazki erakusketa ibiltari bat prestatu nahi du eta, horretarako, errekarekin zerikusia duten antzinako argazkiak bildu nahi ditu. Halakorik izanez gero, udaletxeko Ingurumen departamentura eramatea edo antzinakoargazkixak@oinati.net helbidera bidaltzea eskatzen da uztailaren 30a baino lehen.

150 herritarrek eman dute izena baratza publikoetarako

Udalak egindako gonbiteari erantzunez, 150 herritarrek adierazi dute baratza publikoetan parte hartzeko gogoia. Gehiago dira San Martin gunea hobetsi dutenak, Torrealdekoa baino. Udalak aukera ezberdinen arteko balorazioa egingo du orain, eta 15 eguneko epean emango du erantzun bat.

Su detektagailuak eskatzeko epea

Urriaren 31ra arte zabalik dago etxe partikularretan su detektagailuak jartzeko eskaerak egiteko epea. Bakarrik edo bikotean bizi diren 80 urtetik gorako herritarrek eska dezakete.

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIAK
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**



Sdistira
estetika zentrua

- Manikura eta Pedikurak
- Solarluma
- Gorputzeko Tratamenduak
- Aurpegiko Tratamenduak
- Depilazioa


San Lorenzo 4. behea | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI
email/twitter: estetika.distira@gmail.com

'MENUA EUSKARAZ'

kanpaina jarri du abian Udalak taberna eta jatetxeekin batera

► Taberna eta jatetxeetako pintxo eta menu eskaintza euskaraz egitea da kanpainaren helburua, eta herritarrek euskaraz eskatzera animatzea

► Kanpainan parte hartzen duten herritarren artean bi lagunentzako afaria zozketatuko da



▲ **Ikur hau ikusiko dugu kanpainan parte hartzen duten taberna eta jatetxeetan**

egokia izan daitekeela iritzita, menuak, kanpoko arbelak, esku-orriak, pantailak etab. euskaratzeko kanpaina jarri du abian Udalak.

Herriko taberna eta jatetxe guztiei luzatu zaie kanpainan parte hartzeko aukera. Udaleko Euskara zerbitzuak laguntza eskaini die testuak ituli, zuzendu edo zalantzak argitzen laguntzeko.

HERRITARRAK ANIMATU

Taberna eta jatetxeetako eskaintza euskaratzeaz gain, herritarrek ere euskara gehiago erabiltzera animatu nahi ditu Udalak. Helburu horrekin, kanpainan parte hartzen duten establezimenduetan euskaraz eskatzen duten bezeroei txarteltxo bat emango zaie, euren datuekin bete dezaten. Kanpainaren amaieran (abuztuak 31) jasotako txartel guztien artean bi lagunentzako afaria zozkatuko da. Bezeroek ez ezik, saritutako txartela eman duen establezimenduak ere sari bat jasoko du. Beraz, animo eta eskatu menuak eta pintxoak euskaraz.

E kaineren 30etik abuztuaren 31ra bitartean 'MENUA EUSKARAZ' izeneko kanpaina jarriko du abian udaleko Euskaraz zerbitzuak herriko hainbat taberna eta jatetxeekin batera. Ezkerreko irudikoa bezalako txartel bereizgarri bat ikusiko dugu ekimen honetan parte hartzen duten establezimenduetan. Guztira 14 taberna eta jatetxe egin dute bat kanpainarekin. Establezimendu hauetan euskaraz irakurri ahal izango dugu karta, eguneko menua eta pintxo eskaintza, eta beraz, herritarrek ere euskaraz eskatzera animatu nahi ditu Udalak.

Udaleko Euskara zerbitzua aztertzen aritu da herriko jatetxe eta tabernetan menuak, ogitartekoak eta pintxoak iragartzeko erabiltzen diren euskarriak (pantailak, arbelak, txartelak, kartak...) eta emaitza hauxe da: eskaintza kanpoko aldean dutenen %70ek gaztelania hutsean etgiten dute; bestalde, menu nahiz pintxo eskaintza %35ean gaztelania hutsean dago.

Beraz, kontuan hartuz Oñatiko herritarren %80tik gora euskaraz ulertzeko gai direla, eta, bestalde, kanpotik datozenei gure ezaugarri linguistikoen berri ematea

Parte hartzen duten taberna eta jatetxeak

- Artxubi
- Garoa
- Bikoitz
- Etxe Aundi
- MU-Enpresagintzako taberna
- Luis taberna
- Izarratiz
- Portu
- Oñati
- Aloña Mendi
- Olakua
- Arantzazu Hospederia
- Goiko Benta
- Soraluze

Oharra: kanpainak irauten duen bitartean edozein taberna edo jatetxe izango du aukera parte hartzeko. Udaleko Euskara zerbitzuan (943780411) egin behar du eskaera



FORMAZIO TAILERRAK

ekintzaile, autonomo eta mikroenpresa berrien sortzaileentzat

Enpresa ekimen berri bat martxan jarri nahi duten ekintzaileei, edo mikroenpresa bat sortu berri dutenei, eta autonomoei zuzendutako formazio tailerrak antolatatu ditu Debagoieneko Mankomunitateak.

Bost ikastaro izango dira, eskumako taulan ikusten den moduan. Tailer guztiak dohainik dira, eta nahi bestetan parte hartu ahal izango da, baina aurrez izena eman behar da.

Tailer guztiak Arrasaten egingo dira, Mankomunitatearen egoitzan, goizez (09:30-13:30).

Informazio gehiago jaso nahi izanez gero, edo izena emateko: Mankomunitateko Garapen Ekonomikorako Agentzia (Nafarroa etorbidea 17 - 943 79 30 90), edo Oñatiko Udal Enplegu zerbitzuan (Bidebarrieta 12 - 943 03 77 00). Plaza mugatuak dira, eta uztailako tailerretarako dauden plazak betetzen badira, itxaron zerrenda osatuko da irailean antolatuko den txanda berrirako.



TAILERRAK

► KUDEAKETA KONTROLA

UZTAILAK 3 eta 4 (euskaraz)
'Zer da negozioa kudeatzea? Kudeatzeko tresna ekonomiko-finantzieroak; negozioaren errendimendua kalkulatzeko...'

► SARE SOZIALAK

UZTAILAK 7 (gaztelaraz)
'Nola erabili sare sozial ezberdinak eta bere onurak nire negozioarako...'

► NEGOZIO ELEKTRONIKOA

UZTAILAK 10 (gaztelaraz)
'Internauta bezero; Online denda eraginkor baten diseinua; Online ordainbideak; gatazka eta erreklamazioak; marketina...'

► BETEBEHAR FISKALAK

UZTAILAK 14 (gaztelaraz)
'Izapide edo tramiteak Ogasunean; PFEZ; Sozietate zerga; BEZ; beste aitorten batzuk...'

► KOMUNIKAZIOA

UZTAILAK 17 (euskaraz)
'Nola ezagutarazi nie produktu/zerbitzua? Nola heldu nire bezeroengana? Baliabideak...'

Udalak lau pertsona kontratatuko ditu sei hilabetez udal brigadan lan egiteko

Udalak, Lanbide Enplegu Zerbitzuaren laguntzarekin, lau pertsona kontratatuko ditu irailetik aurrera udal brigadan aritzeko sei hilabetez eta lanaldi osoz. Uztailan zehar egingo da langileen aukeraketa. Lanbideren webgunean agertuko da eskaintza, eta bertan eman beharko dute izena interesatuek. Horretarako, Lanbiden alta emanda eta berriztapena euneratuta izan beharko dute. Udalak elkarrizketa egingo die Lanbidetik jasotzen dituen hautagaiei, eta beharrezko agiriak eskatuko dizkie balorazioa egiteko

LANBIDEren webgunean eman behar da izena uztailan zehar. Udalak elkarrizketa egingo die hautagaiari



Era guztietako **GELTSERITZA** eta **OBRAK** egiten ditugu:

- > FATXADAK
- > TERRAZAK
- > ESTALKIAK
- > IMPERMEABILIZAZIO
- > ERREHABILITAZIOAK
- > IGOGAILUAK
- > BASERRIAK




Intenbide onenak isolamendu termikoko sistemetan (SATE).

kuber.kuber.es Tfno. 943 73 35 73 www.kuber.es

» enpresa ekimenak

'BERRERABILI' DENDA

bigarren eskuko produktuak eta ferreteria

Tarteka, Udal Enplegu zerbitzuaren laguntzarekin sortutako enpresa ekimenen berri ematen dugu orriotan. Oraingoan, jatorriz Ruandakoa den Nkuba familiak zabaldu duen BERRERABILI denda aurkezten dizuegu. Era guztietako produktuak (bulego nahiz etxerako altzariak, elektragailuak, ordenagailuak, telefonoak, bizikletak, jostailuak, erropak...) saltzen dituzte. Denak bigarren eskukoak, eta oso merke. Horrez gain, ferreteria edo burdindegi zerbitzua ere eskaintzen du

70€ balio duen armairu ederra, 40€-ko bizikleta, 85€ko hozkailua edota 35€-ko ordenagailua dira, besteak beste, BERRERABILI dendan aurkitu ahal ditugun produktuetako batzuk. Denak bigarren eskukoak; Nkuba sendiak jaso, konpondu, egokitu eta berriro salgai jarritakoak.

Orain dela bost hilabete jarri zuen abian proiektu hau Nkuba familiak. Udalak Olaburun utzitako lokal batean materiala batzen hasi ziren. Gure etxeetan zokoratuta ditugun era guztietako trasteak (altzariak, elektratresnak, material informatikoa, jostailuak, erropak...) jaso edo erosten dituzte, konpondu, txukundu eta berriro salgai jartzeko. "Gaur egungo egoeran, jende asko dago gauza berriak erosi ezin dituenak, eta bigarren eskuko produktuak behar dituenak. Beraz, edozein gauza zaborretara bota baino lehen, gurekin harremanetan jartzeko eskatzen diogu jendeari" azaldu digu Nkubak. "Norbaitek traste zaharren bat kendu nahi badu etxetik, jar dadila gurekin harremanetan, eta geu joango gara bila".

Gizarte zerbitzu bat eskaintzeaz gain, bererabileraren bidez birziklapen lan inportantea ere egiten du Nkuba sendiak, bigarren bizitza ematen baitie produktuei.

BURDINDEGIA ERE BAI

Bigarren eskuko produktuak saltzeaz gain, burdindegi edo ferreteriako artikulua (berriak) ere saltzen dituzte Berrerabili dendan. "Tailerrean lanean hasi ginenean konturatu ginen, askotan Oñatitik kanpora joan behar izaten genuela ferreteriako produktuak erostera. Beraz, esparru horretan Oñatin dagoen hutsunea bete nahi dugu poliki poliki" azaldu digute..

Nkuba sendia orain dela 9 hilabete iritsi zen Oñatira, eta eskerrak eman nahi dizkiete herritar guztiei jaso duten laguntzagatik; "oso eskuzabala izan da Oñatiko herria gurekin, eta eskertzekoa da".



**Kale Zaharreko
52an dago
BERRERABILI
DENDA
943 905 002
688 297 187**
Astegunetan
9:30-14:00 /
16:30-20:00
Larunbatetan
9:30 - 14:00



Burdindegi edo ferreteriako produktuak ere saltzen dituzte

» enpresa ekimenak

Kalkene s.l.

galdaketa prozesuak optimizatzeko kalkulu eta simulazio zerbitzua

Kaldaketa edo fundizio arloko enpresetako pieza eta prozesuak kalkulu eta simulazioetan oinarrituz optimizatzeko zerbitzua eskaintzen duen enpresa sortu du Haritz Sarriegi Etxeberriak. Ingeniaria da Haritz, galdaketa prozesuetan solidotzearen ondorioz sortzen den mikroegituraren eredu tapenean espezializatua.. Hernaniarra da sortzez, baina Oñatin bizi da azken bost urteotan, eta bertan sortu du enpresa, Zubillagako Olaburu zentroan.

**KALKENE S.L.**

Olaburu Zentroa -ZM7 bulegoa (Zubillaga, 20 - Oñati)
info@kalkene.com / 943 044930

Zeure enpresa propioa sortzea erabaki duzu. Zergatik?

Arrasaten Ingenieritza ikasi ostean Alemanian egin nuen ikasketa amaierako proiektua eta Arrasatera itzulita tesia, galdaketa prozesuetako kalkulu eta simulazioetan espezializatuz. Bide horretan jarraitu nahi nuen, neure enpresa sortzea erabaki nuen. Alemanian nire proiektu eta tesiko zuzendaria izan zenak ere lagundu egin dit, eta bazkideku egin gara.

Zein zerbitzu eskaintzen duzu eta nori zuzendua?

Elementu finitoen metodoa aplikatzen duen softwarea daukagu, Win Cast, eta horren bidez kalkulatu eta simulatu ahal dugu nola izango den pieza baten betetzea eta hozketa, pieza horrek izango duen erresistentzia, edota hozketaren ostean sor daitezkeen poroak eta bestelako akatsak, besteak beste.

Fundizio edo galdaketa sektoreko enpresei zuzendutako zerbitzua da. Plastikoa injektatzen duten enpresekin ere egin dezakegu lan, baina, batez ere,



■ Galdaketa prozesuetan pieza baten betetzea eta hozketa nolakoa izango den kalkulatu eta simulatzen dugu; piezaren erresistentzia eta hozketaren ostean sor daitezkeen akatsak ere kalkula ditzakegu

metala (burdin urtua, aluminioa, magnesioa, kobrea...) galdatzen duten enpresekin egiten dugu lan.

WinCast softwarea bera ere saltzen al duzue?

Bai, aukera hori ere badago; hau da, bezeroei utz diezaiekegu WinCast softwarea, beraiek egin ditzaten

kalkuluak beraien material eta prozesuen behar espe-zifikoetara egokituz.

Zein abantaila eskaintzen dio honek guztiak galdaketa arloko enpresa bati?

Abantaila nagusia da, diseinu eta prozesuak "akats-froga" deritzona egin gabe hobetu daitezkeela. Nahi adina diseinu eta proposamen azter daitezke prototipo fasera iritsi aurretik eta honela materiale eta argindarra bezalako baliabideak aurreztu eta langileak beste zerbaitekin jardun daitezke.

Inbertsio handia egin behar izan al duzu? Laguntzarik jaso duzu?

Inbertsio handirik ez; enpresa sortzeko jarri beharreko kapitala, eta, horrez gain, ordenagailu on bat erosi behar izan dut.

Laguntzen atalean berriz, Oñatiko udalarena da jaso dudana laguntzarik onena. Enpresa plana aurkeztu nuen, eta lokal bat eskaini didate Olaburun alokairu prezio oso txukunean. Gainera, 1.600 euroko laguntza jaso dut lanpostu bat sortzeagatik. Eskerrik asko bihotzez udalari.



■ JUAN KRUIZ MAIZTEGI BENGUA 'ALOÑA' / IHESLARI POLITIKOA

Erbestean herriminez bizi zara; zure herria eta lurra beti buruan

► Oñatitik ihes egin zuenetik ia 40 urte pasa direnean, sorterrira itzuliko da aurki Juan Kruz Maiztegi 'Aloña'

Polizia indarren eta torturen atzaparretatik ihesi, ehunka gizon-emakumek alde egin behar izan dute Bidasoaz beste aldera azken 50 urteotan. Euskal Iheslari Politikoak dira. Hainbat urtez isilean egon ondoren, iazko ekainean jendaurrera agertzea erabaki zuten, Euskal Herrian irekitako konponbide prozesuari beraien ekarpena egiteko asmoz. Beraien bide-orria aurkeztu zuten, iheslari guztiek urratsaez urrats etxerako bidea egin dezaten. Ildo horretan, Juan Kruz Maiztegi 'Aloña' oñatiarra ere sorterrira itzulliko da hil honetan, Oñatitik ihes egin zuenetik ia 40 urte pasa direnean. Sorterrira eta lagunak ikusteko gogoz dagoela aitortu digu.



Juan Kruz bere biloba Pagoa besoetan duela

Noiz eta zergatik erabaki zenuen Oñatitik ihes egitea?

Oñatin, eta Euskal Herri osoan oro har, egoera latza zen garai hartan. Francoren azken exekuzioen ondoren egoera latza sortu zen, eta haren ondotik atxilotetak hasi ziren alde guztietan. Orduan erabaki nuen herritik alde egitea, 1975eko urrian.

Ez zen erabaki erraza izango familia, lagunak, etxea... atzean uztea?

Ez, noski, erabakia ez da samurra, baina egoeraren arabera jokatu behar duzu, eta egoera hark horixe agintzen zuen, edo hala uste nuen nik, ez bainuen goardia zibilen eskuetatik pasa nahi, torturatu egiten baitzuen. Herriko beste kide batzuk eraman zituzten, eta nik alde egitea erabaki nuen iparraldera. Jakina, orduan ez nuen pentsatzen hain luze joko zuenik, baina egoera luzatuz luzatuz joan da gaur arte.

Garai hartan errefuxiatuekiko

onarpen eta babes maila handiagoa eogngo zen, ezta?

Bai, garai hartan iheslari-karta ematen zuen gobernuak, eta horrekin bizimodu publikoa egiteko aukera genuen; kontrolatua, baina bizimodu nahiko normala edo egonkorra egiteko aukera izan nuen urte batzutan, bere muga eta traba guztiekin, noski.

Gero, denborarekin, baimen

Gerra zikinaren urte latzak bizitza ere egokitu zitzaizun.

Bai, urte oso gogorrak izan ziren. Nahikoa segitua izan nintzen denbora batean GAlen aldetik, eta hainbat susto izan nituen. Nire ohiko bizimoduan aldaketa k egitera behartua izan nintzen.

Bizitza arriskua ikusi al zenuen?

Bai, oso gertutik bai. Bizi

1985ean oso segitua izan nintzen GAlen aldetik. Hainbat susto izan nituen eta iparraldetik alde egin behar izan nuen. Mexikon egon nintzen dozena bat urtez

horiek guztiak murriztuz joan ziren, erabat kendu arte. Frantziar eta espainiar gobernuen arteko paktuen ondorioz, gure egoera estutzen joan zen gero eta gehiago, unean uneko egoera politikoaren arabera: konfinamenduak, kanporaketak,...

normala eta librea egiten nuen, oso segitua izan nintzen eta, ondorioz, alde egitea erabaki nuen denbora baterako. Mexikon pasa nituen dozena bat urte.

Ordurako ezkondua zinen eta alaba txiki bat ere bazeneukan, ezta?

Bai, lau urte pasatxoko alaba txikia. Oso gogorra izan zen, jakina, urrutiko herrialde batera joan beharra eta bizimodu berri bati ekin behar izatea, baina egoerak halaxe agintzen zuen.

Nola bizi izan zinen Mexikon?

Lan ezberdinak egin nituen, eta bizimodu normala egin nuen. Ez gaizki eta ez ondo. Beti herrimenez; zure herria eta zure lurra beti buruan; berriz ere etxera itzul ahal izango zaren egunaren zain.

Noiz itzuli zinen iparraldera?

1999an. Orduz geroztik bertan bizi naiz.

Zein da zure egoera gaur egun? Ba al duzu kausarik justiziarekin?

Ez. Mexikotik itzuli nintzenean izan nuen epaiketa bat eta libre ateratu nintzen. Orain dela gutxira arte paperik gabe egon naiz, frantziar gobernuak beti ukatu izan dizkit, baina duela urtebete pasatxo pasaportea eskuratu dut.



Oñatiko udal gobernu taldeko ordezkariak 'Aloña'ri egindako bisitaldietako batean.

Iheslari politikoen kolektiboa isilean egon da urte askotan, baina iazko ekainean aurpegia ematea erabaki zenuten. Zergatik?

Publikoki urrats bat ematea erabaki genuen, nor garen eta zein egoeratan gauden eza-gutzero emateko. Euskal gatazkaren konponbidean ireki den prozesuarekin bat egiten dugu, eta geu ere gatazka horren ondorio garen neurrian, geure ekarpena egin nahi dugu.

Azken hiru urteotan egoera asko aldatu da: Aieteko bide-orria, ETArekin armak uzteko erabakia, ezker abertzalearen estrategia aldaketa, nazio-artearen inplikazioa, bake foroak... Gauzak aldatu egin dira, ez behar beste, baina urrats inportanteak eman dira, eta guk ere elikatu egin nahi dugu prozesua aurrerabidean.

Kolektiboak markatutako bide-orriari jarraituz, zeu ere Oñatira etorriko zara laister. Zer sentitzen duzu?

Bai, ezin dizut zehaztu noiz, baina badut Oñatira itzultzeko asmoa, bai. Badut gogoa sorterrira ikusteko; ezagutzen ditudanak, edo gelditzen direnak behintzat, ikusteko

gogoz nago. Bizia eman dizun lurrarekin geratzen zaizun barreneko sentipen berezi bat da.

Hala ere, zure asmoa iparraldera itzultzea da, ezta?

Bai, nire bizitzaren parterik handiena kanpoan egin dut eta gelditzen zaidan bizia hemen kokatua dut. Beraz, Oñatira joango naiz eta egun batzuk egingo ditut bertan,

urratsak ematen ari direla, eta bide egokitik doala, bere zailtasun guztiekin.

Jendea gero eta kontzientzia handiagoa hartzen ari da; ez jende guztia, noski, hori ez da sekula lortzen, baina bai herriaren parte handi bat, eta nik espero dut herri libre bat izango garela. Beharbada nik ez dut ezagutuko, baina zuek gazteok ezagutuko duzuela

Badut gogoa Oñati ikusteko eta ezagutzen ditudanak, edo gelditzen direnak, agurtzeko, baina gero iparraldera itzuliko naiz; gelditzen zaidan bizia hemen kokatua dut

baina hemen segitzea pentsatzen dut.

Azken batean Euskal Herrian gaude, eta Euskal Herrian zehar libre ibili ahal izatea litzateke normalena.

Nola ikusten duzu bake prozesua Bidasoaz beste aldetik?

Egoera zailtasun askorekin ikusten da, baina bestaldetik ikusten dut aurrera doala,

uste dut, herri libre bat, herri aske bat.

Ezer esan nahi al diezu oñatiarrei?

Besarkada handi bat. Iruditzen zait, ikusten dudaren arabera, jendea borrokalaria dela Oñatin, kontzientzia asko hartu duela jendeak, herrira aitzina doala, eta horrek asko poztzen nahu. Besarkada handi bat eta segi dezatela horrela.

Euskal Iheslari Politikoen Kolektiboa

Zabala eta anitza da euskal iheslari politikoen kolektiboa (EIPK). Arrazoi politikoengatik eta errepresioaren ondorioz Euskal Herriko ihes egin behar izan duten belaunaldi ezberdinetako herritarrak biltzen ditu. Gaur egun 500 bat dira munduko herrialde ezberdinetan barreiatuta bizi direnak, egoera eta bizi-baldintza oso ezberdinetan.

Frankismo garaitik hona tratamendu desberdinak jaso ditu kolektiboak; onartuak izatek jazarpena pairatzera pasa dira, modu ezberdinetan: gerra zikina, konfinamenduak, deportazioak, euroaginduak...

MIARRITZEKO BIDE-ORRIA

Hainbat urtez isilean egon ondoren, iazko ekainean agerraldi publikoa egin zuten iheslari politikoen Miarritzen. Euskal Herriak pairatzen duen gatazkaren ondorio direla egiaztatu eta konponbidean parte hartzeko borondatea azaldu zuten,

Euskal preso eta iheslarien aurka aplikatzen diren salbu-espeneko neurri errepresiboak desaktibatzeko garaia dela dio EIPK-k, eta dei egiten diote euskal herriari eta erakundeei lan egin dezaten erbestertuen giza eskubideak bermatzeko.

Bestalde, bake prozesuaren baitan, gizarte demokratikoa eraikitze beharrezkoak diren errelatoa eta erreparazioan parte hartzeko borondatea agertu du EIPK-k.

Aieteko Adierazpenak markatzen duen bide-orriari erreferentzia eginez, konponbide demokratiko eta integral batek gatazkaren sakoneko arrazoiei eta ondorioei erantzutea eskatzen duela dio EIPK-k. Illo horretan, bere bide-orria aurkeztu zuen, konponbide orokorraren baitan iheslari guztien etxeratze mailakatua egiteko.

Baso eta belardietako bioaniztasuna ezagutzeko INFORMAZIO PANELAK

► **Oñatiko Naturzaleak** taldeak sei panel jarri ditu Olapoton, San Martinen, Santa Lutzian eta Murgian, herriko parke eta belardietako bioaniztasuna balioan jarri eta ezagutzera emateko asmoz

Ondoko argazkikoa bezalako sei informazio panel jarri ditu Oñatiko Naturzaleak taldeak herrigunetik gertu dauden hiru zuhaitztietan (San Martin, Santa Lutzia eta Olapoto) eta Murgia auzoan (Murguzur baserri ondoan). Hariztietako eta baserri ingurueta belardietako bioaniztasuna ezagutzera ematea da panel hauen helburua.

'Hariztiak ezinbesteko habitatak dira hegazti, ugaztun, anfibio, narrasti eta ornogabe arkorentzat ere. Zuhaitzen atal guztietan bizi dira: sustraien artean tunelak egiten dituzte, habiak adarretan eta enborren barne aldean, elikagaia aurkitzen dute bertan...' irakur daiteke, esaterako, Olapotoko panelean.

San Martin eta Santa Lutzian berriz, zuhaitz zahar eta hilek bioaniztasuna godetzeko eta baso berriak sortzeko duten garrantzia azaltzen duten panelak aurkituko ditugu. *'Milaka izakirentzako janari, babesleku eta bizileku bihurtzen dira zuhaitz zaharrak. Bioaniztasuna babesteko zaindu behar ditugu'*, irakur daiteke bertan.

Basoetako saguzarrei eta haritz zaharretan bizi den muxarrari buruzko panel bana ere aurkituko dugu Santa

Lutzian eta San Martinen. Murgiakoak berriz, baserri ingurueta belardietan aurki dezakegun bizitza erakusten du.

Erraz eta garbi irakurtzeko moduko informazioa ematen dute panelek, euskaraz eta gazteleraz. Gainera, marrazki ederrez osatzen da informazioa. Naturako ilustratzaile bikaina izan zen Iñaki Zorrakin santurtziarrak (1961-2004) egindako marrazkiak dira.

Udalak ingurumen izaerako ekimenak sustatzeko iaz emandako dirulaguntza baliatu du Naturzaleak taldeak sei panel hauek jartzeko. Beraz, aurrerantzean paseatzera joaten garenean, baso eta belardietako bioaniztasunaz ikasteko aukera ederra izango dugu.

OÑATIKO NATURZALEAK

Duela urte pare bat eratu zen Oñatiko Naturzaleak taldea. Naturarekiko kezka eta jakinmina duten hogeit bat herritarrek osatzen dute. Gure herriko natur ondarea aztertu, balioan jarri eta ezagutzera ematea da taldearen helburua, eta ingurumenari eragin



diezaioketen arazoak detektatu eta konpontzen ahalegintzea.

Bi urte hauetan zehar hainbat lan egin dituzte. Alde batetik, Oñatiko erreken egoeraren diagnostikoa egiten dihardute: uraren kalitatea, isurketak, zaborrak, espezie inbaidatzaileak... aztertuz. Ildo horretan, Ur Zozoaren jarraipena egiten ari dira; erreketako hegazti enblematikoa da hau, eta erreken kalitatearen adierazlea ere bada, ur-laster garbietan bizi baita. Hainbat bikote antzeman dituzte orain arte halakorik ez zegoen erreka guneeetan eta, beraz, badirudi hobetuz doala erreken egoera.

Orain, esan bezala, herriguneko zuhaitztietako (San Martin, Santa Lutzia eta Olapoto) ondarea babestu eta balioan jartzeko proiektua dute esku artean. Lehenengo fasean, bioaniztasuna herritarrei ezagutzera

ANE MERTZERIA

- Josteko zarak
- Lantzeria
- Umeen jantziak

Kale Berrin, 54 Oñati

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. Oñati

Olapotoko
informazio panelaSanta Lutzia
informazio panelaMurgia auzoko
informazio panela

Bioaniztasuna babesteko zuhaitz zaharrek eta hilek duten garrantzia, harizti eta belardietako landare eta animaliak, eta basoetako saguzaharra eta muxarrari buruzko informazioa aurkituko dugu paneletan, euskaraz eta gazteleraz, eta Iñaki Zorrakin zenak egindako ilustrazio ederrez osatuta.

EGITASMO GEHIAGO

Oñatiko Naturzaleak taldea herriko erreken egoeraren diagnostikoa egiten ari da. Horrez gain, Olapoton anfibioak ugaltzeko ur putzu bat egokitu, eta bertako elementu etnografikoak (karobia, ur askak, iturria, burdibidea) berreskuratu eta balioan jartzeko asmoa du. Olapoto, San Martin eta Santa Lutzia parkeak elkarrekin lotzea interesgarria litzatekeela uste dute.

emateko panelak jarri dituzte, baina, aurrerago, etnografia eta erabileraren aldetik ere landu nahi dituzte. Adibidez, Olapoton anfibioak ugaltzeko ur putzu bat egokitzeko asmoa dute, eta bertan duaden elementu etnografikoak (karobiak, ur askak, metal ureko iturria, burdibidea...) berreskuratu eta balioan jartzeko asmoa ere badute, aktuazio txikien bidez eta parkearen izaera naturala mantenduz betiere.

Olapoton dagoeneko 115 zuhaitz eta landare espezie ezberdin identifikatu dituzte, eta hegaztien artean 30etik gora mota ezberdinetakoak daudela diote Naturzaleek taldekoek. Parke horietan zer dugun jakin nahi dute, aktuazioren bat egin beharko balitz, ahalik eta kalte gutxien egiteko bertako bioaniztasunari.

Naturzaleak taldekoek uste dute oso

interesgarria litzatekeela Olapoto, san Martin eta Santa Lutzia parkeak elkarrekin lotzea; animalientzako hiruzpalau kilometroko korridore ekologikoa sortuko litzateke, eta herritarrok ere ekosistema aberats honetan murgiltzeko aukera izango genuke, gaur egun oso gutxi erabiltzen den Olapotoko parkea balioan jarritz.

Proiektu asko ditu esku artean Naturzaleak taldeak bistan denez, eta lanerko gogoia ere bai, baina taldeko kide guztiak bolondresak dira, eta, beraz, ahal duten neurrian jaango dira gauzatzen.

Naturzaleak taleko ateak irekita daude nahi duten herritar guztientzat. Bertako kide izateko ez da beharrezkoa aditua izatea ingurumen gaietan; nahikoa da natura maitatzea eta ikasteko gogoia izatea.

INGURUMENA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK

Iaz bezala aurtun ere 15.000 euro emango ditu Udalak ingurumenaren kontserbazioa, errehabilitazioa, defentsa, zabaltzea, sentsibilizazioa eta babesa sustatzea helburu duten ekimenak sustatzeko. Deialdira aurkeztutako eskaeren arabera, honela banatuko da dirua: Txirrinka taldeak 6.300 euro jasoko ditu, bizikletaren erabileraren aldeko sentsibilizazio eta kontzientziazio kanpainak egiteko.

Bestalde, Aloña Mendiko Espeleologia taldeak 5.7550 euro jasoko ditu 'Urzulo-2014' proiektua garatzeko, eta Aranzadi zientzia elkarteak 2.440 euro jasoko ditu, habia-kutxen bidez ingurumen heziketa egitea helburua duen 'Txoribox' izeneko egitasmoa garatzen laguntzeko.

» UDAKO IKASTAROA LEGE-SOZIOLOGIA INSTITUTOAN

JUSTIZIA TRANTSIZIONALA aplikagarria al da Euskadin?

25. urteurrena borobiltzeko Justizia Trantsizionalari buruzko biltzar berezia egingo da Lege Soziologia Institutoan



Agintari akademiko eta politikoak, Lege Soziologia Institutoaren 25. urteurrena ospatzeko maiatzean egin zen kongresu bereziaaren irekiera ekitaldian

Justizia Trantsizionalari buruzko biltzar interesgarria egingo dute Lege Soziologia Institutoan uztailaren 28tik 30era. Euskal Herriko Unibertsitatearekin elkarlanean antolatutako biltzar honetan justizia trantsizionalaren printzipio eta kontzeptu nagusiak aztertuko dituzte, Espainia eta Euskadiko testuinguru espezifikoetan, Kolonbia, Afrika eta Europa ekialdeko herrialdeetan eman izan diren esperientziak aintzat hartuz.

Justizia Trantsizionala

Justizia trantsizionala ez da justizia mota berezi bat, baizik



PACO ETXEBERRIA forentseak emango du inaugurazio hitzaldia

Ekitaldi irekia izango da interesa duen ororentzat

Adam Czarnotak (institutoko zuzendaria) eta Joxerramon Bengoetxeak (EHUko irakaslea) zuzenduko duten biltzar honetan bi hitzaldi ireki egongo dira, interesa duten herritar guztientzat, biak ere oso interesgarriak. Irekiera hitzaldia Paco Etxeberria EHU eta Aranzadi elkarteak kideak emango du uztailaren 28an, goizeko 9etan. Itxiera hitzaldia berriz (guztiz konfirmatu barik) Wolfgang Weisbrod-Weber Nazio Batuen erakundeak Saharan duen ordezkariak emango du.

eta justizia aplikatzeko modu bat, giza eskubideen urraketa masiboak gertatzen diren kasuetarako. Diktaduratik demokraziarako trantsizio aldietan, edo gatazka armatu baten ondoren aplikatu izan da. Neurri judizial eta politikoen konbinazioa izaten da, biktimen eskubide juridikoak (egia, justizia eta erreparazioa) eta eskakizun politikoen (bakea, elkarbizitza...) arteko oreka bilatzea helburu duena.

80. eta 90. hamarkadetan joan zen indartuz justiziaren ikuspegi hau, Latinoamerikan, Europa ekialdean edota Hego Afrikan gertatutako aldaketa politikoei eta justizia eskeari erantzuteko.

Espainian aldiz, diktaduratik demokraziarako trantsizio aldian ez ziren justizia trantsizionalaren printzipioak (egia, memoria, justizia, erreparazioa, berradiskidetzea...) aplikatu. Alderantziz, Gernikan gertatutakoa memoria kolektibotik ezabatzeko ahalegina egin zen, eta horren aurka euskal diasporak egindako lana jorratuko da hitzaldietako batean.

Diktadura garaian izan ziren eskubide urraketak ere aztertuko dituzte, eta gaur egungo ikuspegiak begiratzuz, Euskadin justizia trantsizionala aplikagarria den ala ez aztertuko dute. Biktimen eta tortura kasuen inguruko ponentziak ere aurkeztuko dira. Gainera, Kolonbia, Sobiet Batasun ohia, Mozambique eta Saharako esperientzien inguruko ponentziak ere egongo dira, justizia trantsizionalaren aplikazioak batean eta bestean egindako ekarpenak aztertu eta alderatzeko.



ZURICH

M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxori Kalea 5 behea
Tel/Fax: 943 78 30 09 • Mugikorr: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXETAN ERA GUZTIAKON KONPONKETAN
PERFORAK, LERRAK, LUR FLOKATZAK, ARBOLAK, PINTURAK LANAK...






DIRUTIAK ZURE ETXERENTZAKO
DIRUTIAK, KODIAKAK, KODIAKAK, KODIAKAK
DIRUTIAK, KODIAKAK, KODIAKAK, KODIAKAK
695 78 91 04 - 943 04 47 77

ESTRESA eta ANTSIETATEA

menperatzen ikasteko tailerra

emango du Lourdes Agirrebengoak

Askok, beharbada, ez duzue ezagutuko, Danimarkan bizi baita aspalditik Lourdes Agirrebengoak oñatiarra. Antropologoa da formazioz, baina azken hiru urteotan buru-osasunaren inguruko gaietan dabil murgilduta, Eckart Tolle alemaniarren 'El poder del ahora' izeneko teorian oinarrituta. Tailer praktikoen bidez, gure eguneroko estresa eta antsietatea kontrolatu eta arintzen ikasteko teknikak erakusten ditu Lourdesek. Erraza omen da; burua momentuko gauzetan zentratzea da gakoa, teknika samur batzuen bidez. Uztailan Oñatira etorriko da Lourdes, eta hori aprobetxatuz bi eguneko tailerra emango du bertan.

Zure ustez, geure buruan dago eguneroko bizitzako estresa, antsietatea eta sufrimenduaren arrazoiak edo kausa.

Bai. Kontua da, gure burua beti dagoela preso iraganeko eta etorkizuneko pentsamenduen artean; hau da, beti gaude iraganeko gauzetan pentsatzen edo etorkizunaz kezkatzen, eta horrek sortzen du gugan angustia, beldurra eta estresa.

Gure burua pentsamendu horiekin identifikatzen dugu, eta identifikazio hori da estresaren eta neurosien arrazoiak.

Beraz, konturatu behar gara, gu ez garela gure pentsamenduak. Horixe da gakoa, eta hori lortzeko teknika lantzen dugu tailerrean.

Geure burua momentuko gauzetan zentratzen ikasi behar dugu, beraz?

Bai, hala da. Pentsamenduetan ez galtzeko, bizi dugun momentuko gauzetan jarri behar dugu arreta. Zure arreta edo atenzioaren zati bat eramaten baduzu, adibidez, zure gorputzera, eta beste zatia momentu horretan egiten ari zaren gauzetara, pentsamendu eta sentimenduen mundua bigarren plano batean geratzen da, eta horri esker,

gure estresak, antsietateak eta sufrimendua generalean gutxituz doaz.

Entrenatu egin behar da; probatu egin behar da praktikaren bidez. Hitzek adierazita bakarrik zaila da ulertzea.

Pentsamenduak alde batera utzi eta burua momentuko gauzetan fokalizatzeo teknikak erakusten dituzte tailerrean. Zaila al da?

Ez, oso erreza da. Jarri arreta edo atentzio pittin bat zeure

arnasean, edo gorputzean. Onartu agertzen diren gauzak, bizimoduko egoerak MOMENTUAN, agertzen diren bezala, ez egin kontra, ez kexatu, ONARTU, eta jada bazabiltza zeu bakarrik praktikatzeko.

Eckhart Tolle-ren 'El poder del ahora' liburuak oso ondo eta errez azaltzen du praktika hau. Beraren inspirazioarekin nabil.

Ariketa sinplea ematen du; baina zure bizitza alda

Lourdes Agirrebengoak

 **Burua beti daukagu iraganeko edo etorkizuneko pentsamenduetan murgilduta, eta horrek sortzen digu estresa, antsietatea eta sufrimendua. Burua momentuko gauzetan fokalizatzen ikasi behar dugu. Oso erraza da.**

HITZALDI-SOLASALDIK ETA ERRETIROA ARANTZAZUN

► HITZALDIK OÑATIN

Uztailak 10, osteguna, udal liburutegian, 19:00-20:00
[Hitzaldiak irekiak eta dohainik dira](#)

► HITZALDIK ESKORIATZAN

Uztailak 15 eta 17 Ibarraundi musoan, 19:00-20:00
[Hitzaldiak irekiak eta dohainik dira](#)

► ERRETIROA ARANTZAZUN

Bi eguneko erretiroa Arantzazuko Santutegia Hotelean.
Bi aukera daude: uztailak 12-13, edo 19-20.
Prezioa: 131 €, logela bikoitzean (76€ alojamendua, pentsio osoan, eta igandeko bazkaria, eta 55€ tailerra.
Bakarkako logela nahi izanez gero, +16,50€).

► INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA:

ointxebai@gmail.com edo 633 822 019



dezake, ezta?

Nik esaten dudana da, proba egin behar dela. Probatu eta praktikatu, eta gero egingo dugu berba.

Nori gomendatuko zenioke bertara hurbiltzea?

Edozeinek parte hartu leike. Tailer praktikoa izango da. Isiltasunaren laguntzaz atentzioa pentsamenduetatik hartu eta fokalizatuko dugu orain eta hemen dauden gauzetan (arnasa, gorputza

Kontuz bidegorria gurutzatzerakoan

Torrauzoko bidegurutzean lehentasuna oinezko eta txirrindulariarena da

Bidegorrietan ikusten ditugun bide-seinaleen errepasoa egiten ari gara 'Bizikletaren Txoko' honetan, ibilgailu mota ezerdinen arteko elkarbizitza sustatu eta, batez ere, oinezko eta bizikletazaleen segurtasuna bermatzeko asmoz.

Oraingo honetan Torrauzoko bidegurutzean jarri dugu arreta. Kontu handiz ibili beharreko puntua da hau, bidegorriak errepidea gurutzatzen baitu, eta, askotan, kotxeek behar baino abiada handiagoan gurutzatzen dute. Garbi geratu behar da bidegurutze honetan oinezkoek eta txirrindulariek dutela lehentasuna. Motordun ibilgailuek abiadura moteldu eta bidea eman behar dute. Beraz, arretaz ibiltzea eskatzen da; begiratu eta poliki pasa.



< Munduan zehar >

Sevilla, bizikletan ibiltzeko munduko laugarren hiribu onena

Bidegorri sarea eraiki eta martxan jarri izanak, Sevillari nazioartean eman dion irudi bereiztua, ukaezina da. Hori esaten du hain zuzen ere, bizikleten diseinuan eta azpiegituran aditua den www.copenhagazine.eu web orri prestigiotsuak egin-dako ranking batek.

Bertan adierazten denez, Sevillar hiriburua, bizikletan ibiltzeko munduko laugarren hiriburu onena da; Amsterdam, Copenhagen eta Utrecht-en atzetik. Web orrian egindako ikerketa horretan azaltzen denez, Sevilla, bizikleta tendentzia eta



Sevillan zehar garraiatzeko "Sevici" bizikleta zerbitzua.

planteamentuen ikur bilakatu da. Urtebete eskasean, 80 kilometroko bidegorri-sarea eratu zen eta denboraren poderioz, kilometro kopuru hau haziz joan da.

Aurrerapen honen sekretua, borondate politiko aurrerakoa izan dela ondorioztatzen du web orriko ikerketak. Eraldaketaren prozesu honetan, Sevillako hiriburua, 2006. urtean % 0,5 bizikleta-erabiltzaile edukiz, %7 erabiltzaile izatera pasatu zen. Era berean, ikerketak dioenez, hiriburu dagoen bizikleta alokairu zerbitzua (Sevici), oso egokia da eta horrek ere laguntzen du.



ALTUBE ZERRITZUAK

Portu Kalea 5
20560 Oñati
Gipuzkoa



MAPFRE

Tel.: 943 78 12 65
943 78 33 97
Faxa: 943 78 07 65

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inventa@telefonet.es



Izena: Unai Murgiondo
Ogibidea: Ingeniaria

Zer da bizikleta zuretzat?
Gaur egun ohiko garraiobide bat.

Zergatik eta zertarako erabiltzen duzu?

Duela urte urte pare bat hasi nintzen. Lantokiraino bertaraino bidegorria zegoela ikusita, txipa aldatzea erabaki nuen. Etxean kotxe bat kendu eta orain lanera bizikletaz joaten naiz egunero. Umeak eskolara eramateko, erosketak egiteko eta herri inguruan ibiltzeko ere erabiltzen dut.

Ze abantaila ikusten dizkiozu?

Batez ere erosotasuna eta azkartasuna. Ekonomikoagoa ere bada, naturarekiko garbiago jokatzeko duzu, eta, gainera, osasun fisiko eta psikorako ere mesedegarria da.

Zer egingo zenuke bizikletaren erabilera sustatzeko?

Herri mailan, bidegorri sarea ahalik eta gehien zabaldu. Beste maila batean, laguntzak eman daitezke bizikletak erosi eta mantentzeko, eta pizgarri fiskalak ere jar litezke bizikleta erabiltzaileentzat.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Baikor. Gure lantegian adibidez, gero eta aparkaleku gehiago jartzen ari gara bizikletentzat, eta espero dut bide horretan jarraitzea.

Uztailak 19an (22:00) -Foruen Enparantzan-

Kantoikrit, badator beste urtebetez pinoi finkodun bizikleten festa

Uztailak 19an KANTOIKRIT Kriteriuma (pinoi finkodun bizikleten lasterketa) ospatuko da Oñatiko herriko kaleetan zehar. Gaueko 22:00etan hasiko da Foruen Enparantzan eta pasa den bi edizioetan bezala bizikletak, txirrindulariak, izerdia, indarra, pasioa, zaleak, animoak eta giro ezin hobe izango dira protagonista. Lasterketa ondoren kontzertua izango da SanAnton Plazan Bitz eta Gora Gora Kids taldeen eskutik. Ostiralean, giroa berotzen joateko asmoz, Pinoi finkodun bizikletekin loturiko zenbait bideo-proiektzio egongo dira herriko hainbat tabernetan. **Informazio gehiago: www.kantoikrit.com**



Galtzada-harri tartea, probaren puntu ikusgarrienetarikoa bat.

Bestalde, Txirrinka taldeak beste bi ekintza antolatu ditu uztailerako. **Uztailaren 16an**, bizikletan lanera doazenentzako **gosaria** txaketuako bidegurutzean. Horrekin batera, **coffee & bike** izeneko ikastaroa ere egingo da (**Uztailak 14, 16, 21 eta 23**). Norberak bere bizikleta hobeto ezagutzeko oinarritzko klaseak izango dira. 2,5 orduko lau saiotan banatuta egongo da eta 8 plaza izango dira guztira; 18:00etatik 20:30etara. Txirrinkako bazkideak 10€ eta bazkide ez direnak 15€ ordaindu beharko dute. Izena ematea txirrinka@gmail.com helbidean.

Merkatua >

Erabilera bikoitzeko eserlekua PostPump 2.0



Biologic PostPump 2.0 erabilera bikoitza duen eserleku berezia da. Eserleku funtzioa betetzeaz gain, bere tijaren barruan puzgailu sistema berezi bat ere gordetzen du. Gurpilak haizeztatu edo zulatu bat aldatu behar denean, ezinbesteko herramienta den puzgailua, bizikletako egitura integratuta dakar sistema berritzaile honek.

Bideoa:

<http://www.youtube.com/watch?v=ClxI1Pm83SE>

caravanas  **Oñate**

• GALBARAGINTZA - CALDERERIA
Ondututako zabalak, 25 • Tel.: 943 71 63 60

www.caravanasoonate.com

• BIZIKLETAK
• ERREMOLKEAK
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK
Ondututako zabalak, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeturteko hile, 32 orduko eskualde

Zuazola institutoaren 50 urteko ibilbidea liburu batean

Rodrigo Mercado Zuazola institutoak 50 urte bete ditu aurten, eta ospakizunak borobiltzeko, mende erdiko ibilbidea laburbiltzen duen liburua argitaratu dute.

Egia esan, 50 urte horiek baino tarte zabalagoa hartzen du liburua, izan ere, lehenengo atalean gerra aurreko (1928-1936) urteetako kronika jaso baitu Jerardo Elortza historialariak, Garai hartan Oñatin Bigarren Mailako Institutua jartzeko egindako ahaleginak eta izandako gora-beherak azaltzen dira bertan.

Gainreakoan, Oñatiko institutoak 1963tik gaur arte egindako ibilbidea jasotzen du liburua: ikasketa plan ezberdinak, eraikinean izandako aldaketak, ikas-tetxearen historian mugarri izan diren



Jerardo Elortza eta institutoko zenbait irakasleren artean idatzi dute liburua

ospakizunak... Gainera, etapa ezberdinetan irakasle edo ikasle izandako hamabost laguni egindako elkarrizketak ere badaude, beraien bizipenak azaltzen dituzelarik. Etorkizunera begira jarrita, duela bi urte herriko ikastetxe publikoek sortutako Urgain proiektuak dituen erronken berri ematen da, eta liburuko azken atalean garai ezberdinetako 173 argazki osatutako albuma aurkituko dugu.

Turismo bulegoan eta Altuna, Ibarrondo, Haritza eta Hirukar liburudendetan eskura daiteke liburua 3 eurotan.

Euskal Herriko Adiskideen Elkarteko Adiskide Numerario izendatu dute Socorro Romano

Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteko (Real Sociedad de los Amigos del País) Adiskide Numerario izendatu dute Socorro Romano Agirre (Oñati, 1959) eta Jose Maria Unsain (Orio, 1951), Donostiako Untzi Museoko zuzendariak.

Soco Romanok Filologia eta Letrak ikasi zuen Valladoliden eta Granadan, Artearen Historian espezializatuz, eta gero Parisen trebatu zen museoaren kudeaketan. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean Donostiako Untzi Museoaren sorreran parte hartu zuen, eta bertako kuzendaria da 1991az geroztik.

Unsainekin batera balio handiko lana egin dute euskal itsas kultura mantendu, ikertu, berreskuratu eta ezagutzera ematen, Jose Antonio Azpiazu historialari oñatiarrak azpimarratu zuen bezala, Adiskide berriei eskainitako harrera-hitzaldian. Untzi Museoa kudeatzeaz gain, hainbat liburu argitaratu dituzte, 'Itsas Memoria' izeneko aldizkaria editatzen dute, eta erakusketa ugari antolatuta dituzte ('Los Baroja y el mar', 'Euskadiko Gudontzidia, 1936-39', 'Churruca y otros marineros vascos de la Ilustración', 'Los vascos y el Pacífico. Andrés de Urdaneta', 'Efectos medioambientales del Prestige', 'Euskal baleazaleak'... besteak beste), euskal itsas kultura ezagutzera emateko asmoz beti ere.



Enpresagintza fakultateak Valentzian emango du Ekintzailetza gradua

Mondragon Unibertsitateak Oñatin duen Enpresagintza fakultateak Valentzian emango du irailetik aurrera Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza (LEINN) izeneko gradua, bertako Florida Unibertsitatea-rekin sinatutako lankidetzak hitzarmenaren eskutik. Bologna-ko esparruan homologatutako gradua da LEINN, eta gaur egun Enpresagintza fakultatea da berau ikasteko aukera ematen duen bakarra Espainian.

LEINN graduak berrikuntza, ekimena, esperimentu ekintzailea, lidegorako eta elkarlanerako gaitasuna eta komunikaziorako trebetasunak lantzen ditu, besteak beste, Finlandiako Team Academyk garatutako metodologia berritzailean oinarrituta, enpresak, proiektuak, negozioak eta produktuak abian jarri eta gizartearen aberastasuna sortzeko helburuarekin betiere.

Mondragon Unibertsitateak Oñatin, Irunen, Bilbon, Madrilén eta Amsterdam-en ematen du LEINN gradua, eta datorren ikasturtetik aurrera batita Valentzian eta Bartzelonan ere.

BURRUST
TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



DEBAGOIENeko XVII. GASTRONOMIA JARDUNALDIak**Uztailaren 31rarte dastaketa menu bereziak eskualdeko 8 jatetxetan**

Debagoieneko Turismo sailak XVII. Gastronomia Jardunaldiak antolatu ditu eskualdeko zortzi jatetxe eta bertako produktuen ekoizleekin elkarlanean. Eskualdeko txakolina, txokolatea eta sasoiko barazkiak izango dira jardunaldi hauetako osagai nagusiak, eta hauetan oinarritutako menu bereziak dastatu ahal izango ditugu uztailaren 31ra arte honako jatetxe hauetan: Oñatiko **ETXE AUNDI**, **GOIKO BENTA** eta **TORRE ZUMELTZEGI**; Arrasateko **HILARION** eta **SANTA ANA**, Bergarako **LASA**, eta Elgetako **MAIALDE**. Menu guztietan ratio erdiko bi lehen plater eta bi bigarren sar-tzen dira, sarrerakoa eta postreaz gain. Jardunaldietan parte hartzen dutenen artean bi pertsonentzako afaria zozkatuko da.

Menuak dastatzeaz gain, bertako produktuak ekoizten dituzten baserrietara bisita gidatuak egiteko aukera ere egongo da.. www.turismodebagoiena.com helbidean ikus daitezke menuak eta gainerako eskaintza.

**SUKALDARITZA TAILERRAK JATETXEETAKO SUKALDEETAN**

Menu goxoak dastatzeaz gain, jardunaldie baitan parte hartzen duten jatetxeetako sukaldean sartu eta beraiekin ikasteko tailer ezberdinak ere antolatu dituzte: **'Tarta errazak'** (uztailak 1-Goiko Benta); **'Barazki pastelak'** (uztailak 8-Hilarion); **'Hostopila eta sukaldeko trikimailuak'** (uzt. 15 - Lasa); **'Barazkiz betetako tartatxoa'** (uzt. 22-Maialde); **'Txokolatzeko postreak'** (eguna zehaztu gabe -Etxe Aundi). Aurrez izena eman behar da: 943 796 463 / turismo@debagoiena.net.

**INAUGURATU DUTE 'LAGUN LEKU'**

Ekainaren 13an inauguratu zuten Olakua eta San Lorentzoko hainbat erretiraturik auzolanean sortu duten 'Lagun Leku' elkarteak, ETEOko taberna izandako lokalean. Gogotsu ekin diote gainera. Dagoeneko bi hitzaldi eta jostintza tailer bat ere antolatu dute bertan. Oraingo 60 lagunek eman dute izena elkartearen, baina lokala zabalik dago herriko erretiratu guztientzat, eta, bestalde, ELTZIA proiektuaren eskutik ETEO zaharrean dabiltzan herritarrek ere izango dute bertan mokadutxoa edo kafetxoa hartzeko aukera. Lagun Leku arratsaldetan dago zabalik 17:00etatik aurrera.

'Flashmob' jendetsua Goardia Zibila Euskal Herritik joan dadin eskatzeko

Arrakastatsua gertatu zen ekainaren 14an ospatutako 'Fan Hemendik' eguna, laugarrena. Ohi bezala, aldarrikapenak eta festak bat egin zuten, Goardia Zibila Oñatitik eta Euskal Herritik joan dadin eskatzeko; 400 bat lagun bildu ziren bazkarian, eta gainerako ekitaldiak ere oso jendetsuak izan ziren. Aurten, berrietasun moduan, 'flashmob'-a egin zuten manifestazioa kuarterl aurretik pasa zen unean, eta erantzun ezinhobea izan zuen, ia Lizaur kale osoa hartu zutelarik. Ondorengo helbidean dago ikusgai bideoa. <http://www.youtube.com/watch?v=NUHDDUMydXw>

**NAGUSIEI OMENALDIA**

Herriko jubilatuen asteari amaiera emanez, ekainaren 29an ospatu zen nagusiei eskainitako omenaldia. Miren Arrazola (95 urte) eta Victor Lopez de Ocarizek (92 urte) jaso dituzte aurten ohorezko txapela eta zapia herriko erreiratu guztien izenean. Gero, 250 bat lagun batu ziren kiroldegiko herri bazkarian. Bapo bazkaldu eta dantza egiteko aukera izan zuten iluntzerarte, giro ezinhobean. Opari zozketa ere egin zen, eta aurten Hilario Garciarentzat izan da sari nagusia, Udalak ematen duena, bi lagunentzako bidaia Benidormera.

ALGARVERa (Portugal) irailaren 15etik 24ra Pake-Lekuren eskutik

Pake-Leku elkarteak 10 eguneko bidaia antolatu du Portugaleko helgoaldeko kostaldera (Algarve). Irailaren 15etik 24ra izango da. Pake-Lekuko iragarki taulan dago ikusgai programa osoa. Izen-ematea **uztailaren 22 eta**



23an egin behar da 18:00-20:00. Irailaren 5ean ordaintzeko azken eguna izango da, eta irailaren 8eta 10ean txartelak banatuko dira. (Pake Leku Bidaia: 943716220)

Elbarrientzako aukera berdintasuna sustatu nahi du TRAUTIK

► Kanposantuko gune berrira iristeko jarri duten plataforma lorpen handitzat jo dute



Trauti elkarteko kide eta laguntzaileetako batzuk

Oztoporik gabeko Oñati baten alde lan egiten duen 'TRAUTI-Hesirik Gabe' elkarteak urteko batzuk orokorra egin zuen ekainaren 27an. Udalarekin elkarlanean, azken urte honetan egindako lanen errepasoa egin zuten. Hala, kanposantuko alde barrira iristeko jarri den plataforma elektrikoa lorpen inportantea dela azpimarratu zuten, hainbat jende bertara joan ezinda egon baita urte askotan. Hurrengo pausoa, kanposantuko zorua eta herrigunetik bertaraino iristeko ibilbidea egokitzea izango da. Hasita daude lanean Udalarekin batera.

Zahor eta Berezao artean oinezkoen segurtasuna bermatzeko hartu diren neurriak, eta, beestalde, anbulatorioa, kiroldegia eta San Juan kalen egindako irisgarritasun lanak ere positibotzat jo dituzte. Halako lanak egin aurretik Udalak TRAUTI elkartearekin kontrastatzen ditu proiektuak. Orain, esaterako, San Lorentzo eta Ramon Irizar plazan egingo diren lanak aztertzen ari dira, elbarritasunak dituzten pertsonen beharrak kontuan hartuz egiten direla bermatzeko.

Herriko zenbait denda eta zerbitzutako sarreran dauden mailak kentzea da TRAUTIKoen beste helburuetako bat, eta horretan ere eman dira aurrerapausoak. Bestalde, TRAUTIK jakinarai zuen Gipuzkoako Foru Aldundiarekin akordioa adostu dutela, lineako autobus guztietan gurgil-aulkientzako plaza bat egon dadin.

Datorren urterako helburuen artean, Bidebarrieta, Arantzazuko Ama eta Ultzegein kaleetako espaloi batzuetan dauden gehiegizko desnibelak konpontzeko asmoa agertu zuten. San Prudentzioko autobus geltokiak dituen gabezia eta arriskuen inguruko kezka ere mahaigaineratu zuten.

Horiez gain, orain arte bezala herriko ikastetxeetan hitzaldiak ematen jarraitzeko asmoa adierazi zuten, mugikortasun arazoak dituzten pertsonen inguruko kontzientzia zabaltzeko gatzetxoaren artean.

ELBARRIENTZAKO APARKALEKUAK

Bestalde, elbarrientzako aparkalekuetan egiten den erabilera desegokia ere salatu zuten; kotxe batzuk egun osoan egoten dira bertan aparkatuta (kasu batzuetan beharrik gabe). Beraz, txartelak berrikusi edo beste neurriren bat hartzeko eskaria luzatu diote Udalari.

TRAUTIK eskertu egin du Udalak beraiekiko duen sentibilitatea, eta elkarrekin gauzak egiten jarraitzeko brondatea agertu zuen. Poliki poliki oztopoak kentzen joango gara, herritar guztien mesederako, eta minusbaliak dituzten pertsonen aukera-berdintasuna bermatzeko.



Giltza udaltzaingoan eskatu behar da

Mugikortasun arazoak dituzten pertsona asko kanposantuko gune berrira joan ezinik egon dira denbora askoan. Orain plataforma elektrikoa egokitu du Udalak, TRAUTI elkartearen eskaera aintzat hartuz. Berau erabili nahi dutenek udaltzaingoan eskatu behar dute giltza, edo, bestela, kanposantuko langileari.



KIROLDEGIKO IGERIKETA IKASTAROAK

adi!

Uztailaren 14tik 18ra zabalduko da, urritik aurrera kiroldegian emango diren ikastaroetarako izen-emate epea

Zubikoa kiroldegian urritik aurrera emango diren igeriketa ikastaroetan edo ur-ekintzetan parte hartu nahi baduzue, adi, izen-ematea aurreratu egin baita uztailera. Zehazki, **uztailaren 14tik 18ra** eman ahal izango da izena, kiroldegiko bulegoan, goizez (10:00-13:00) edo arratsaldez (16:00-19:00). Bestela, oporren ostean ere egongo da izena emateko aukera, **irailaren 1etik 4ra**.

Talde bakoitzeko gehieneko ikasle kopurua gainditzen denean, zozketa bidez erabakiko da onartutako ikasleen zerrenda. Zozketan lehentasuna izango dute oñatiarrek, eta horien artean kiroldegiko bazkideek.

Gero, irailaren 10ean behin behineko zerrendak argitaratuko dira, eta erreklamaziotarako epea (irailak 11 eta 12) igaro ostean, irailaren 16an kaleratuko dira behin betiko zerrendak. Urriaren 13an hasiko da ikasturtea.

ESKAINTZA IKUSGAI

Uztailaren 2az geroztik kiroldegiko iragarki taulan eta www.oinati.eu webgunean dago ikusgai igeriketa ikastaro eta ur-ekintzen zerbitzuen eskaintza. Iaz bezala, aurtien ere **haurrentzako** igeriketa ikastaroak (maila ezberdinak) eta **helduentzakoak** (Hastapena eta Hobekuntza) egongo dira. Horiez gain, helduentzako **Aquagim** eta **Aquatraning** saiok ere egongo dira.



Irailaren 1etik 4ra ere eman ahal izango da izena

UDA KIROL KANPAINA

2. txandarako izen-ematea ZABALIK

Udal Kirol zerbitzuek antolatutako Uda Kirol Kanpainak aurrera darrai. Gororatu, 2. txandan (ekainak 14-uztailak 28) parte hartu nahi baduzue uztailaren 7a baino lehen eman behar dela izena. Abuztuaren beste bi txanda egongo dira: 1etik 14ra eta 19tik 29ra. Abuztuko txandetarako izen-ematea uztailaren 21ean itxiko da.

UDAKO ORDUTEGIA Kiroldegian

UZTAILA

Astegunak: 7:30-21:30
Larunbatak: 10:00-20:00
Igandeak eta jaiegunak: 10:00-20:00

ABUZTUA

Asteartetik igandera: 10:00 - 20:00
Astelehenak: ITXITA



Eskola Kiroleko amaiera festa

Kiroldegia eta herriko hiru ikastetxeetako gurasoek koordinatzen duten Eskola Kirola programaren ikasturte amaierako jaia ospatu zen ekainaren 14an. Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara arteko 300 bat neska-mutikok parte hartu dute aurtien Eskola Kirolean, eta lehiaketa ezberdinetako txapelak beraien saria jaso zuten. Oporraldiaren ondoren, urrian jarriko da martxan berriz ere Eskola Kirola programa. Irailean zabalduko da izen-ematea.

Iokin Garai hirugarren Hiru Handietan



Iraupen luzeko probetan gustura ari da Iokin Garai, eta horren lekuko Hiru Handiak proban lortutako 3. postua. Gorbea, Anboto eta Aizkorri lotzen dituen zeharkaldia (100km. eta 5.126 m.-ko desnibel positiboa) 11:16:46an osatu zuten Iokin. Aitor Otamendi (12:22:25) 15., eta Asier Urdan-pilleta (13:08:02) 41. izan ziren hurrenak.

HUESCAN IRABAZLE. Sasoi puntu ederra aprobetxatuz, Sobrarbeko Ultratailean parte hartu zuen Jokinek ekainaren 29an garaipena lortuz. 65 kilometro luze eta 3.330 metroko desnibela duen proba 7:30:21ean osatu zuen.

Imanol Erle azkarrena Askazubin



Imanol Erle irabazi zuen ekainaren 28an jokatu zen Zubillaga eta Askazubi arteko kronoigoera. Erle 17 minutu eta 51 segundotan osatu zuen 3,3km.ko igoera gogorra (500 m.-ko desnibela) eta 2 minutuko aldea atera zion bigarren sailkatuari, Endika Mantecon segurarrari. Lander Billar atxabaltarrak osatu zuen podiuma. Guztira 17 txirrindularik parte hartu zuten.

Goleña

Arianna Burgos Euskadiko txapelduna gimnasia erritmikoan



Arianna Burgos gimnasilaria oñatiarrek urrezko domina lortu zuen ekainaren 14an Leioan jokaturako Euskadiko txapelketan. Ariannak soka eta uztaiarekin egin zuen saio bana, eta bietan lortutako puntuazioari esker txapelketa irabazi zuen Kadete-B mailan. Ariannak 16 urte ditu, eta hainbat urtez Aloña Mendiko Gimnasia taldean ibili ondoren, azken hiru urteotan Bergarako Ariznoa taldean ari da.



Oñatiarren erakustaldia

Aloña Mendiko gimnasia erritmikoko taldeak ikasturte amaierako saioa eskaini zuen ekainaren 15ean. Lide Osinagak entrenatzen dituen 76 gaztetxok parte hartu zuten, koreografia bizi, alai eta ikusgarriak eskainiz, hala taldeka nola bakarka,

Josune Odriozolak bost domina Espainiako txapelketan



Josune Odriozola igerilari oñatiarrek bost domina irabazi zituen ekainaren 14-15ean Murzian jokaturako Espainiako igeriketa egokituko txapelketan absoluto mailan. Josunek urrezko hiru domina lortu zituen 200 Libreetan (2.27.82), 200 Bizkarrean (2.58.67) eta 400 Libreetan (5.11.99), eta zilarrezko bi, 50 Tximeletan (37.99) eta 100 Bizkarrean (1.22.26). Josune oso gustura dago Murtzian lortutako markekin, eta beraz, hurrengo hilean Holandan

jokatuko diren Europako txapelketetara joateko itxaropena dauka. Bestalde, ekainaren 14an Txantxiku Saria jokatu zen Oñatin. Gipuzkoa eta Errioxako 10 talde ezberdinetako 320 igerilarik parte hartu zuten. Taldeka Bidasoa nagusitu zen, eta Aloña Mendi bigarren sailkatu zen.

Oñatiko I. Patin Eguna, uztailaren 5ean

Herriko patinzale talde batek antolatuta, Oñatiko I. Patin Eguna ospatuko da uztailaren 5ean. Goizeko 10:45etan plazan bildu eta 11:00etan ibilaldia egingo dute. Bi aukera egongo dira: 1.- Oñati eta Madalena arteko joan-etorria (ume eta hasiberrientzat); 2.- Oñatitik San Prudentziora eta buelta. Amaieran pintxoak eta musika egongo dira plazan, eta 13:00etan slalom erakustaldia pilotalekuan.



Gerriko beltzak Aloña Mendiko karatekentzat

Aloña Mendiko Karate saileko Kevin Martin eta Alberto Lera maila bat gorago daude karateko rankinean. Uztailaren 21ean Gexon egindako azterketan Kevin Marinek gerriko beltza jazea lortu zuen. Alberto Lerak lehendik ere bazuen gerriko beltza eta orain 3. Dan maila lortu du. Zorionak biei.



Txirrindulari eskola bikain

Aloña Mendiko Txirrindulari Eskolak denboraldi bikaina osatu du. Alebin eta Infantil mailako txirrindulariek zazpi karrera irabazi dituzte, eta beste hainbat podium ere bai. Azken bietan, Urretxun eta Aramaion, podium osoa bete zuten. Eta inportanteena, emaitzak lortzeaz gain, asko ikasi eta disfrutatu dute.



Herriko Pilota txapelketa

Ekainaren 13an jokatu ziren herri mailako gaztetxoek pilota txapelketako finalak. Pre-Benjamin mailan: Oier Osa 18-13 Oier Castaños; Benjamin-1. urtea: Malen Etxegarai 18-16 Oier Altxelai; Benjamin-2. urtea: Iñigo Guridi 18-6 Imanol Perez; Alebinak: Peru Galdos 18-9 Mikel Ugarte; Infantilak: Manex Urrutia 18-15 Aitor Tatiegi; Kadeteak: Ander Biain 18-7 Xabi Aiausti.

Harrobiko taldeentzako entrenatzaileak behar ditu futbol sailak

Hurrengo denboraldira begira, harrobiko futbol taldeentzako entrenatzaileak eta laguntzaileak behar ditu Aloña Mendik. Halaxe jakinarazi zuten, ekainaren 20an egindako batzar orokorrean. Gainerakoan, amaitu berri den denboraldia oso positiboa izan da, bai kirol arloan eta baita ekonomikoki ere, 10.381 euroko superabitarekin amaitu baitu ekitaldia. Horri esker, hainbat inbertsio egingo dituzte Azkoagainen (megafonia eta garbigailuak) eta **Eibar** taldearen bost akzio ere erosi ditu Aloñak.

JON AIZPEURRUTIA SARITUA

Kirol arloan, entrenatzaileen aldetik iritsi dira albisterik aipagarrienak. Batetik, **Jon Aizpeurrutia 'Aias'** Kadete mailako entrenatzaile onena izendatu du Gipuzkoako federazioak. Bestalde, azken hiru urteotan Erregional mailako taldeko entrenatzaile izan den **Andoni Azkargortak** Eibar taldean ariko da, 1. mailan, Gaizka Garitanoren laguntzaile lanetan.

Larrañako futbol zelaia ere izan zuten hizpide batzar orokorrean. Positibotzat jo zuten argiak jarri izana, baina, hala ere, aldagela modulo bat eta trasteleku bat beharrezkotzat jotzen ditu Aloña Mendik, etekin handiagoa atera ahal izateko.



Bukatu berri den denboraldian aipamen berezia jaso duten jokalaririk



Andoni Ugartek Sansen jokatu du

Realean ari den Andoni Ugarte oñatiarrak Realaren bigarren taldean jokatu du hurrengo denboraldian, 2. B mailan, Asier Santanaren esanetara. Hamar jokalaririk igoko dira aurten Jubenil mailatik Sansera. Andonik 6 urte darama Realean.

MENDI IRTEERA / Uztailak 19 - 20

Asteburuko irteera Piriniotara

ESTANES LAKUA eta BISAURIN

Bi eguneko irteera antolatu du Aloña Mendiko Mendi sailak uztailerako. Lehen egunean, uztailak 19, GR-11ko etapa bat egingo dute. Candanchuko pistatik abiatu eta Aspeko pasabidetik Estaneseko lakura helduko dira. Handik Oliboneko zirkora sartuko dira Lizarako aterpetxera jeisteko (18 km. inguru, 700m.ko desnibela, 6-7 ordutan egiteko).

Igandean, Plana Mistresara igoko dira, Secus aldera, Bisaurineko ipar aurpegia irabazteko. Bide normaletik jeitsiko dira, Foraton leporaino, handik Gabarditoko aterpera heltzeko. (15 km. eta 1200m.ko desnibela).

Lizarako aterpetxean izango dute afaria, ohea eta gosaria. Izara-zakua eraman behar da. Bertan ez dute autobusik edu-kiko; beraz, bi egune-tarako beharreko guztia motxilan eraman beharko da. Gehienez 30 lagunentzako tokia egongo da. Bazkideek lehentasuna izango dute.

- **IRTEERA:** uztailak 19, goizeko 6etan, Korreos parean
- **IZEN-EMATEA:** uztailak 8-15, Aloña tabernan.
- **PREZIOA:** Bazkideak 60€ (langabetuak 50€); ez-bazkideak 70€ (langabetuak 50€).



Mikel Ugarte hirugarren Santurtziko triatlian

Denboraldi bikaina egiten ari da Mikel Ugarte Oñati Triatloi Taldeko kidea, eta ekainaren 8an lortu zuen denboraldiko posturik onena, Santurtziko triatloiko podiumera igota. Sprint erako proba izan zen (750m.-20km.-5km.), eta Mikelek 1:00:24an osatu zuen lana, Peter Kerr irabazlearengandik 2 minutura.



Sergio Garcia eta Estela Biain nagusi Torreazon

Etxeko korrikalariak izan dira nagusi Torreazonoko lasterketan. Gizonezkoetan Sergio Garcia hirugarren garaipena lortu zuen jarraian, 24:23ko denborarekin. Ruben Lanz (24:30) legazpiarrak eta Ander Agirre (24:27) bergararrak osatu zuten podiuma. Sasoi puntuan daude hirurak, astebete lehenago Korpuseko lasterketan erakutsi bezala, eta lehia estua izan zuten beraien artean. Emakumezkoetan, Estela Biain (30:32) izan zen azkarrena; Eva Calle (31:99) eta Miren Josune Bikuña (32:20) oñatiarra sailkatu ziren. Danera 103 korrikalaririk parte hartu zuten Antxintxiketan kirol elkarteak antolatutako proban. Antolatzaileek sari berezia eman zioten Santi Lizarrari, orain arteko 17 edizioak egin dituelako.





Senideekin eta Oñatitik joandako lagunekin ospatu zuen garaipena Mainerrek

Euskal Herriko Eskolarteko txapela irabazi du Maider Arregik

Hilabeteren buruan bi txapela irabazi ditu Maider Arregi Markuleta Oñatiko Bertso Eskolako kideak: Gipuzkoako Eskolartekoa maiatzaren 25ean Arrasaten, eta Euskal Herrikoa ekainaren 21ean Orion.

Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Iparraldeko lehen bi sailkatuak aritu ziren Orioko finalean. Agurren ondotik, zortziko handian, txikian, bakarka eta koplatan aritu behar izan zuten bertsolari gazteek. Gustura zen Maider egindako lanarekin. "Oso lasai egon naiz eta, gainera, gustuko gaiak egokitu zaizkit. Lan guztietan ale politen bat utzi dudala uste gut".

Hala uste izan zuen epai-mahaiak ere, eta Maiderrek jantzi zuen XXVI. Euskal Herriko Eskolarteko txapela Maialen Lujanbioren eskutik. "Ilusio handia egin dit Maialenek txapela jartzea; idolo bat bezala da niretzat, jarraitetako eredu bat".

Azken agurreko bertsoa ere berezia izan zuen, minbiziak eraman zuen bere lagun Olatz Zabarteri eskaini baitzion txapela Maiderrek; "beti eduki izan dut buruan,



Maialen Lujanbiok jarri zion txapela Maiderri

eta pentsatu nuen une eta leku egokia zela Olatzekin gogoratzeko".

Etorkizunera begira

Bertsolaritzan norbait izan daitekeela pentsatzeko arrazoiak baditu honenbestez Maiderrek, baina oinak lurrean dituela esan digu.

"Bertsolari on asko dago gaur egun, eta txapel hau irabazteagatik ez dut ust puntako bertolaria naizenik". Igarri du, hala ere, orain jende gehiagok ezagutzen duela, eta gustatuko litzaioke txapel honek plaza berrietan kantatzeko atea zabalduko balio, "plazarik

plaza asko ikasten baita".

Zer ikasi edo hobetu nahi lukeen ere esan digu Maiderrek. "Kantatzen hasi aurreko denbora tartea moztu, eta bertso osoagoak kantatzea; hau da, azken puntuan bakarrik zentratu barik, bertso osoa edukiz betetzea". Neurri handiagotan kantatzen ere hasi nahi luke tarteka.

Eskolarteko txapelketan ezingo du berriro parte hartu, 18 urterarte izaten baita, baina ez du baztertzen bertsolari gazteentzako txapelketare batera aurkeztea. "Gustatzen zaizkit txapelketak. Lehia ez zait bereziki gustatzen, baina txapelketek jende asko erakartzen dute, eta hori inportantea da".

Datorren urtean jokatuiko den Gipuzkoako bertsolari txapelketara aurkeztea ere ez du baztertzen eta, bestalde, udazkenean hasiko den Oñatiko txapelketan izango da txapela defendatzen.

BERTSOAK

Orioko finalean, bakarka.

Gaia: Duela bi hilabete zahar etxe batera eraman zaituzte eta ez zaizu inor bisitan joan. (Doinua: *Itziarren senea*)

*Ez bizilagunak ta
ez lagun taldea,
ta gainera dirudit
famili gabea.
Zahar etxe honetan
a zer nahigabea!
Ta gaur konturatu naiz,
badut edadea,
zeinen gauza tristea
den bakardadea*

Olatz Zabarte zenari eskaini zion txapela Maiderrek. (Doinua: *Izarren hautsa*)

*Familia ta bertso-eskola
baduzue zenbait arte,
ta zorionak atzeko denei,
ze poz eta ze aldarte!
Baina txapela norentzat izan
haize bolada leun bat gisan
oroitzapenek dakarte.
Nire kuadrila beti izan da
nire bizitzaren parte,
baina bada bat gaur dagoena
pixkat gugandik aparte.
Nahiz ta lau urte diren jadanik,
nola ezer ere ez dizudan nik
eskeini izan gaur arte:
zuretza Olatz Zabarte.*

ANTONINO IBARRONDOREN omenezko seilua eta postala

Antonino Ibarondo Oleaga (1914-1985) musikari handiaren jaiotzaren mendeurrena betetzen da aurten. Ekainaren 12an ehun urte beteko zituzkeen, eta hori gogoratzeko, haren omenezko seilua eta postala atera ditu Oñatiko Filatelia eta Numismatika elkarteak.

EKITALDI NAGUSIA AZAROAN

Antonino Ibarondo zenaren omenezko ekitaldi nagusiak azaroan izango dira. Hala, aurtengo Musikegunak jardunaldiak berari eskainiak egongo dira oso-osorik, eta orduantxe aurkeztuko dira haren omenezko liburua eta CDA.



Turismo bulegoan eskura daitezke 3 eurotan



Maria Luisa Maiztegiren omenezko PINTURA ERAKUSKETA

Maria Luisa Maiztegi Arabaolaza (1924-2012) zenaren margolanak daude ikusgai kultur etxean uztailaren 13ra arte, egunero, (astelehe-netik igandera, 18:00-20:00). Mikel Ugarte oñatiarren erakusketatik antolatutako erakusketak da, Maria Luisa gogoratu eta bere arte-lanak oñatiarrei erakusteko helburuarekin.

Bere bizitzako azken urteetan ezagutu zuen Mikelek Maria Luisa. Oso emakume jantzia zela dio; irekia, jakingura eta geldigaitza. Artista gisa berriz, teknikoki landua eta pintzelkada leunekoa.

Mikelek beti pentsatu izan du Maria Luisaren lanak ezagutzera ematea merezi zuela, eta helburu horrekin antolatu du erakuskea hau.

Oñatiko euskaraz jakin beharrekoak liburu batean bilduta

Oñatiko euskara aberastu nahi duten guztientzat erreferentziazko liburua idatzi dute Roberto Altuna, Kepa Elortza eta Koldo Zumalde euskalzaleek. Gure herriko euskara hobeto ezagutu eta bere aberastasunaz jabetzeko helburuarekin idatzitako liburua da. Oñatiko euskaraz berba egin eta idazterakoan sortzen zaizkigun zalantzak argitzen lagunduko digu.

Hiztegiaren atalean berriz, herriko hiztun jatorrei jasotako hainbat hitz, esamolde eta esaera zahar aurkituko ditugu, gure berbeta osatu eta aberasten lagunduko digutenak. Liburuaren azken atalean oñatieraz idazteko arau edo argibideak aurkituko ditugu, adibide praktiko askorekin. Herriko liburu dendetan (Altuna, Haritza, Hirukar eta Ibarondo), turismo bulegoan eta Arantzazuko dendan eskura daiteke liburua 18 eurotan.



Idazle katalanen poesia eta ipuinak itzuli ditu Gerardo Markuletak

Literatur itzultzaile lanetan murgilduta dabil azkenaldian Gerardo Markuleta idazle oñatiarra. Hala, lde batetik, bederatzita poeta kataluniar garaikideren olerkiak biltzen dituen 'Poeta katalan garaikideak. Antologia' plazaratu du Elkar argitaletxearen eskutik. Bestetik, bost idazle kataluniarren ipuinak biltzen dituen 'Hobe kontatzen ez badidazu' liburua argitaratu du Pasazaite argitaletxearen eskutik. Itzultzeaz gain, sortzaile lanak ere ez ditu albo batera utzita.

Markuletak, eta datorren urteko udaberrirako iragarri du ber poesia liburu berria.

'Zure ahotsaren bila' kaptazio kanpaina jarri du abian Ganbara Abesbatzak

Kantatzea gustuko duten herritar guztiei zuzendutako deialdi irekia egin du Ganbara Abesbatza taldeak. Kantatzeko gogoia duten pertsona guztiek zabalik dituzte Ganbarako talde ezberdinetako ateak. Adinaren arabera, bost talde egongo dira irailetik aurrera:

- Ganbara **HASIBERRIAK**: 3-4 urte (asteartekak 17:00-17:45)
- Ganbara **TAILERRA**: 5 urte (ostegunak 17:00-18:00)
- Ganbara **TXIKITXOAK**: LH 1-4 mailak (astearte-ostegunak 18:00-19:15)
- Ganbara **TXIKI**: LH 5 Batxi I (astelehen eta asteazkenak, 19:30-20:30)
- Ganbara **ABESBATZA**: Batxi II-tik aurrera (ostiralak eta igandeak)

Izena emateko egunak: irailak 2 eta 3, Ganbara Abesbatzaren lekalean (Errekalde 34), 17:30-19:00. Informazio gehiago, 608311239 (19:00etatik aurrera) edo idezkaritza.ganbaratxiki@gmail.com



UZTAILEKO AGENDA

uztailak 12 'MENDIA ILUNABARREAN' Parketxearen eskutik

Arantzazuko Parketxeak eta Arantzazuko Adiskideek aurten gorako antolatu dituzten si mendi ibilaldietan laugarrena egingo da uztailaren 12an. Oraingo hau arratsalde izango da, Parketxetik abiatuta Aloñako tontorrera, mendia ilunabarrean ezagutzeko asmoz. Informazioa eta izen-ematea: arantzazu@gipuzkoamendizmendi.net/943782894. Hurrengo irteera irailaren 21ean izango da, Aizkorri, Unibertso karstikoa hobeto ezagutzeko asmoz.



uztailak 20 KONTZERTUA PAKO TABERNAN 'MERY MAY'



María Fagan Sagasta arrasatearra bere bigarren diska 'Rue Matignon' auzten izango da oraingo honetan, bere gitarra akustikoa lagun duela. Folk doinuak dira nagusi, lan berria baina rock eta pop ikutuak ere baditu. Istorioren eta oroitzapenez betetako abestiak aurkeztuko ditugu irlandar odoleko musikari honek, Aitor Etxagibel (bateria) eta Mikel Azkargorta (baxua) lagun dituela (<http://merymay.bandcamp.com>). *lgandea*, 19:30.

uztailak 20 KONTZERTUA PAKO TABERNAN 'MUNDU' Unplugs The Ramones

Iñigo Munduate 'Mundu' musikari donostiarra (Plan B, Mos Time...) proiektu berri bat aurkeztu digu bakarlari gisa Aurten Ramones taldearen 40. urteurrena betetzen dela eta, taldearen berrikuspen akustikoa proposatzen digu... *lgandea*, 19:30.



Jai egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa deitu du Udalak

San Migel eta Errosario jaietako egitarauaren azala aukeratzeko deialdia egin du udal Kultura sailak. Hemezortzi urtetik gorako edozein pertsonak, oñatiarra izan ala ez, parte hartu ahal izango du. Lanak egiteko teknika librea da, eta neurria A2 edo proportzionala. Derrigorrez agertu beharko da 'Oñatiko Jaixak 2014' testua. Lanak aurkezteko azken eguna uztailaren 11 (eguerdiko ordu batean) izango da, kultur etxean..

HERRITARAK EPAILE

Iaz bezala, herritarren botoz erabakiko da aurten ere irabazlea. Lehiaketara aurkeztu diren lanak kultur etxean jarriko dira ikusgai uztailaren 14tik 18ra, herritarrek bozka dezaten. Sari bakarra emango da, 500 eurokoa. 18 urtetik beherako gazteentzat atal berezia egongo da. Teknika librea izango da eta lanen neurria A4-koa, gutxienez. Irabazleak materialean jasoko du saria eta, gainera, argitaratu egingo da. Kasu honetan ere uztailaren 11a baino lehen aurkeztu behar dira lanak.

▶ TRIANAKO JAIKAK

UZTAILAK 11: 18:30 Trikitxaranga plazatik Trianara; 19:00 Astotrustoren jeitsiera; 19:30 Txorimalo haundixen eta erraldoien kalejira; 20:00 Erromeria, 'Luhartz' taldearekin. 00:00 Topau bikotia eta tragua doan. **UZTAILAK 12:** 11:30 Umeentzako marrazki saioa; 15:00 Ilinti kafea; 16:00 Mus txapelketa; 17:00... Abentura parkea (tirolina, rapela eta slackline); 18:00 Ur-pistola gerria (pistola norberak eraman behar du); 19:00 Txorimalo eta erraldoiak; 19:30 Ardau eta moxal dastaketa; 21:30 Erromeria 'Trikimailu'. Ondoren, txikitako jolasak (tronpo lehiaketa, aulkijokua, soka-saltua...); 01:00 Txupiteixia (txupitua euro 1); 03:30 Txokolata eta gailetak. **UZTAILAK 13:** 12:00 Auzuan hildakoen aldeko meza San Martinen. Ondoren luntxa; 15:00 Auzo bazkaia; 18:30 Pailazuekin dantzak, jolasak, kantuak...; 19:30 Herriko bertsolarixen saioa.



▶ ARGAZKI LEHIAKETA - 'Buru osasuna'

AGIFES elkarteak 'Buru Osasuna Fokatu' III. Argazki Lehiaketa antolatu du. Buru gaixotasuna duten pertsonen ikuspegi baikor eta berriak sustatzea da helburua. Abuztuaren 22ra arte bidali ahal izango dira argazkiak, datu pertsonalekin batera info@aguifes.org helbidera. Facebookeko orrian boto gehien lortzen duen hamar argazkien artean aukeratu dituzte hiru irabazleak. 400, 200 eta 100 euroko hiru sari emango dituzte (www.aguifes.org).

ANTIXENA GAZTETXEAN UZTAILEAN

► 'Arrakala' DOKUMENTALA eta SOLASALDIA

'Arrakala' dokumentalaren emanaldia eta lanketa. Bilgune Feministak eta Topatu Gazte Proiektu Komunikatiboak elkarlanean burutu duten proiektua da, heteroaraua zirrikitzu zulatzea helburu duena.

Uztailak 3, (16:00-20:00)



► ANTZERKIA: 'SOSTemible'

'Txiflando' antzerki tailerrak sortutako sortutako sketch sorta da 'SOSTemible' antzezlanak. Gaur egungo errealitatearen parodia komikoa egiten dute aktoreek, gizakiok ditugun barne kontraesanak muturreraino eramanez.

Uztailak 4, ostirala (20:30)



► KONTZERTUA: 'Etxepare Rap' eta 'Eroa naiz'

Etxepare Rap izenaren atzean Imanol Epelde zarautzaria dago. Euskal literatura eta rap musika uztartzen ditu bere ikusizunean. 'Eroa naiz' Eibarretik datorren talde experimental berria da.

Uztailak 6, igandea (19:00)



► TAILERRA: Kartelak diseinatu Photoshopekin

Photoshop programa erabiliz kartelak egiten ikasteko tailerra. Nork bere ordenagailua eta, ahal bada, programa instalatuta eramatea komeni da. **Uztailak 7 eta 14, astelehenak (18:00)**

► ELKARTASUNA: Presoei gutunak

Preso oñatiarrei eskutitzak idazteko hitzordua. Ondoren zer-bait jateko aukera egongo da. **Uztailak 9, asteazkena (20:00)**

► MENDI IRTEERA

Egun osoko mendi ibilaldia Araba aldera. Itzulera autobusez egingo dugu. **Uztailak 15, asteartea (07:00)**

► KONTZERTUA: 'La Banda del Abuelo'

Arrasateko hirukotea da 'La Banda del Abuelo'. *Spagueti rock* delako musika egiten du eta oso giro beroa sortzen du zuzenekoan beraien jarrera zirikatzailarekin. Eurek egindako instrumentuak (suge elektrikoa) eta didjeridooa bezalako instrumentuak erabiltzen dituzte. Antixena parkean izango da. **Uztailak 19, larunbata, (19:00)**



► AFARI TERTULIA ETOKRINEKIN

Herrian bizi diren jatorri ezberdinetako etorkinekin afari tertulia. Beraien bizipenak eta gaur egungo egoera ezagutzeko aukera egongo da. Aurrez izena eman behar da gasteetxean. **Uztailak 20, igandea, (20:30)**

► BERTSO MUSIKATUAK

Herriko bertsolari eta musikarien arteko elkarlan saioa Antixena parkean. Afari-merienda eta sorpresak egongo dira. **Uztailak 23, asteazkena, (19:00)**

► JAM SESSION

Oñatiko musikarien eskutik 'Jam Session' saioa egingo da Antixena parkean. **Uztailak 18, ostirala, iluntzean**

► HARD ROCK GAUA

'Rotten Notes + Obstruccion Nasal HC+talde sorpresa'. 'Rotten Notes' gasteiztik datorren talde basatia da, eta *hard core grind* musika lantzen dute. **Uztailak 26, (21:00)**

► ESTANPAZIO TAILERRA

Egunean zehar kamiseta, poltsa edo beste hainbat erropa apaintzeko tailerra. **Uztailak 28 eta 29**

ZINE EMANALDIAK ANTIXENA PARKEAN: Udako giro ona eta Antixenako parkeak ematen dituen aukerak aprobetxatuz, asteartero kanpo zine emanaldiak egongo dira bertan, gaueko 10etan.

LIZARGARATE EGUNA – Lizargarateko elkartearen 50. urteurrena

abuztuak
24

Oraindik urruti samar gelditzen bada ere, apuntatu agendan abuztuaren 24an ospatuko dela aurten Lizargarate Eguna, Aurreko Mendiko Lizargarate gunean. Egun osoan zehar trikiti doinuez gozatzeko aukera egongo da. Horrez gain, hamarretakoa, herri kirolak, bazkaria, erromeria eta beste hainbat ekitaldi ere izango dira. Herritar guztiak daude gonbidatuta. Bazkarirako txartelak Urbia eta Arrano tabernetan eta Lizargaraten bertan egongo dira salgai.





Uda sasoirako Udalak antolatzen duen 'KALEAN' kultur egitarauak zenbait berrikuntza ditu aurtten. Kokalekuei dagokienez, herriko gune edo txoko berrietara zabaltzeko ahalegina egin da. Hala, Lazarraga lorategian eta Bidaurretan izango dira saioetako bi. Bestalde, herriko eragileekiko elkarlana sustatu nahi izan da, eta hurrengo urteetan ere bide horretan sakontzeko asmoa du Udalak. Ekainean eman ziztaion hasiera egitarauari, Musika Eskolako Haize Taldea eta Ganbara abesbatzaren kontzertuekin. Hona uztaila eta abuzturako iragartzen direnak.

UZTAILAK - 9



Kontzertua: 'Ventos De Saudade'

LAZARRAGA LORATEGIAN, 19:00

Soraluzeko laukotea da 'Ventos De Saudade': Jon Basauri (gitarra espainiarra), Domentx Uzin (gitarra portugaldarra), Ane Ugalde (zeharkako txirula) eta Arianne Unamuno (ahotsa). Ez daukate aparteko loturarik Portugalekin, baina maisuki interpretatzen dute bertako arimaren musika: fadoa. Amalia Rodrigues, Mariza edo Misia bezalako fadista handien kantuen bertsioak eskainiko dituzte. Eguraldiak laguntzen badu, Lisboako zerua bera ikusteko aukera eskainiko digute.

UZTAILAK - 19



Kantoikrit kriteriuma

HERRI GUNEAN, 22:00

Pinoi finkodun bizikleten kriteriuma herriguneko kale-etan barrena. Txirrindulariek 13 bira eman beharko dizkiote 1,5 km.-ko zirkuitoari. Foruen enparantzaz egongo da aurtten irteera eta helmuga.

UZTAILAK - 23



Kale antzerkia: 'Funes Van'

FORUEN ENPARANTZAN, 19:00

'The Funes Troup' taldearen (Gorka Pereira, Rodrigo Lacasa eta Xabi Larrea) eskutik 'Funes Van' zirkio ikuskizun debiertigarriaz gozatzeko aukera izango dugu. Hiru artistak roulotte berezi batekin agertuko dira, barregarri gelditzeko, absurdoaz barre egiteko, eta guzti horrekin ondo sentitzeko duten gaitasuna erakutsiko dute. Hiru pertsonaia bitxi bezain maitagarri, eta helburu bakarra: barre eraginez ondo pasatzea.

ABUZTUAK - 30



Surf Festa

Urtero bezala, abuztuari agur esateko Surf festa izango dugu. Egun osoko festa izango da; jauzi lehiaketa goiz partean Usakon, eta arratsaldean sardina jana eta musika izango dira, besteak beste.

ABUZTUAK - 31



Zirkoa

FORU PLAZAN, 19:00

Umorea, antzerkia, objektuen manipulazioa eta akrobaziak uztartzen dituen zirkio ikusikizun ikusgarri eta dibertigarria, 'Malas Compañías' Ttalde bizkaitararen eskutik.



VA-KUERO IN ZAPLASTEKO



Guardiako farmaziak

(gaueko 10ak arte)

ANDUAGA

San Lorentzo 3, 943 78 21 16
Uztailak 7, 8, 16, 17, 21, 23, 25,
26, 27, 29 eta 31. Abuztuak 4, 6,
8, 9, 10, 12 eta 14.

IGARTUA

Kale Zaharra 1, 943 78 01 22
Uztailak 9 eta 10. Abuztuak 18,
20, 22, 23, 24, 26 eta 28. Irailak
1, 3, 5, 6 eta 7.

GARATE

Kale Barria 42, 943 78 05 58
Uztailak 11, 12 eta 13. Abuztuak
19, 21, 25, 27, 29, 30 eta 31.
Irailak 2 eta 4

JULDAIN

Kale Barria 6, 943 78 11 28
Uztailak 4, 5, 6, 14, 15, 18, 19, 20,
22, 24, 28 eta 30. Abuztuak 1, 2,

Guardiako taxilariak

EK. 30 - UZTAILAK 6

JOSEBA ARANZABAL
943 78 02 52 / 636 257 169

UZTAILAK 7 - 13

JUAN JOSE URRRA
943 79 71 72 / 606 004 340

UZTAILAK 14 - 20

JAVIER MARQUEZ
943 78 00 39 / 619 10 43 33

UZTAILAK 21 - 27

JOSE LUIS RABANETE
658 732 709

UZT. 28 - ABUZTUAK 3

IOSU LERTXUNDI
663 031 322

OÑATIKO TAXI GELTOKIA

943 78 03 65

MINUSBALIDOENTZAT EGOKITUTAKO TAXIA

943 400 500

Telefonointeresgarriak

UDALETXEA

Udaletxea943 78 04 11
Udaltzaingoa943 08 10 00
Oñargi943 78 07 08

Gizarte zerbitzua943 03 77 00
Enplegu zerbitzua943 03 77 00
Olaburu zentroa943 71 62 73

TURISMOA

Turismo bulegoa943 78 34 53
Arrikutz Kobak943 08 20 00

KULTUR ETXEA

Kultur Etxea943 78 03 53
KZ Gunea943 02 36 72
Liburutegia943 71 61 11

EUSKARA-HEZKUNTZA

Euskaltegia943 78 24 96
Txaloka Ludoteka943 25 07 15
Txiki Txoko Haur Eskola943 71 64 05

KOMUNIKABIDEAK

Oñati Irratia943 78 20 72
Kontzejupetik943 78 20 72
GOIENA943 25 05 05

KIROLAK

Kiroldegia943 71 63 75
Aloña Mendi K. E.943 78 08 10

GAZTELEKUA

Gaztelekua943 71 60 94
Informazio bulegoa943 71 82 57
Informatika gela943 78 33 04

BESTE BATZUK

Natur Eskola943 71 60 94
Musika Eskola943 78 31 74
Helduen Eskola943 78 35 77
Bake epaitegia943 78 02 54
Korreos943 78 08 54
Notaritza943 78 04 15
Parrokia943 78 18 98

OSASUNA

Oñatiko anbul.943 03 54 30
Larrialdi zerb.943 46 11 11
Arrasateko osp.943 03 53 00
SOS DEIAK112
Gurutze Gorria943 76 55 76
DYA943 46 46 22

ERTZANTZA

Bergara943 53 47 20

SUHILTZAILEAK

Oñati943 41 53 01

GARRAIOAK

PESA902 10 12 10
RENFE902 24 02 02

Odol ateraldia

HURRENGO ATERALDIAK

IRAILAK 12
URRIAK 10
AZAROAK 14
ABENDUAK 12

Txantxiku Ikastolako aretoan
(San Juan kalea, 1)
17:30 - 19:30

Auzoetako plastiko bilketa

HURRENGO BILKETAK UZTAILAK 22 IRAILAK 23

Plastiko batzea ohiko bilketa
puntuetan egingo da.
Bilketa lekuak:
Zañartu: Zuazola inguruan
Murgia: Asentsio ermitan
Olabarrieta: Bus geltokian
ETEO atzealdean

Urrutxuko garbigunea

Astelehenetik ostiralera
9:00-13:30 / 15:00-19:00
Larunbata 9:00-13:30

Tfn.: 943 78 36 67

Traste zaharren bilketa

HILEKO OSTEGUN GUZTIETAN

Traste zaharrak atera baino
lehen, 943 71 19 38 zenbakira
deitu behar da. Traste zaharrak
20:00-22:00
arteana atera behar dira.

Merkatu Txikia

Etxebizitza alokatzen da San Lorentzo
auzoan. Bi logelakoa, guztiz jantzia eta
terraza handiarekin. Garajea aukeran.
Deitu: 610686030

Emakume bat behar da etxeko lanak
egin eta pertsona dependiente bat
zaintzeko, uztaila eta iraila bitartean.
Interesatuak deitu: 697733350.

Duplexa salgai. Ultzezin kalea 11, behe
solairuan dagoena. Etxeak 150m²
baliagarri ditu. Baita 17,5m²-ko garaje
itxia eta 100m²-ko lorategia. Prezioa:
355.000€. Deitu: 609074127 /
649887917

Autokarabana alokatzen da uztaila eta
abuzturako. Perfilatua da 2. edo
gehienez 4 plazakoa. Guztiz ekipatuta,
prezio onean izango litzateke. Gehiago
jakin nahi duenak deitu 635714139
(Antxon).

Etxea alokatzen da Moiuia kalean. 75m²,
hiru logela, egongela, sukaldea eta
komuna ditu. Eraberritua dago eta
berogailua ere badu. 619829209 /
629951015

Oñatin pisua osatzeko pertsona bat
beharko genukeen bi langile gara.
Interesaturik egonez gero, deitu
mesedez arratsaldeko 18:00etatik
aurrer 653 748 751 zenbakira.

Klase partikularrak LH eta DBH mailak.
Esperientzia handiko irakaslea. Orduetegi
flexiblea, ikasleen beharren arabera.
Jarraipen pertsonalizatua. Deitu:
943782843 / 653718030 (Jaione).

Etxebizitza salgai Euskadi Etorbidean. 3
logela, 2 komun, 3 balkoi, egongela eta
sukaldea. 244.000 €. Tel.: 606172128

Etxebizitza alokatzen da San Lorentzo
auzoan (57m²). Garajea aukeran.
Deitu: 610 686 030

kontzejupetik@oinati.net / 943 78 20 72

Antxiñako fotografíxia

Usakoko presapeia ur barik

Aurtego udan be, bape eguraldi itxurosorik egitten badau, makiña bat jentek joko dau **Usako** aldera, errekan freskaittera eta eguzkixa hartzera. Garai batian inguruko auzuetakuak ziran hango bañistak: Zañartu, Gargaltza, San Pedro, Garibai, Goribar eta abarretakuak. Mutikuak batez be hasieran, neskatiñak gerotxuago. Baiña poliki-poliki kaletar asko be faten hasi zan, kanposantu eta Urrutxutik zihar, **Artixa** erreka presagain eta presape horretara.

Kaletarrok bageukan beste igarileku batzuk: **Mediku-presia**, **San Martin** azpikua eta **Ugarkaldekua**, esate baterako; baiña Artixa errekaquak garbixaguak eta urtsuaguak ziran: **Miru-erreka**, **Albarritza**, **Zuazola**, **Usako** eta **Jardiñazpiko** presa inguruak askoz hobiak ziran. Urrintxuago egotia, horixe. Estimaziñorik haundixena, mutikuen artian behintzat, Usakokuak eukan. Bizikletia ugarittu zanian, oñatiarrak ez ezik, mondraguetarrak eta albuetako beste herri batzuetakuak be ikasi euen harako bidia; erruz, gaiñera. Akordaiten naiz inguruko mutikuak zera esaten ebela: *“laister Etxandí-Elazarra parian ‘kanpotarrentzako’ kateia ifiñi biharko xua-gu!”* Zer egingo euen, ba, leiztar gizarajuok, ordurako Deba erreka ziharo kutsatuta eta zikiña baldin baetorren?

Dana dala, gaurko argazki hau arrazoi berezi bategatik dakartzuegu hona: Usakoko **presapeia erabat hutsik** ikusteko aukeria eskintten doskulako. Hori 1935 aldera izan zan, gerria baiño aurtxuago. **Amorraiñak errekan gora igoteko eskillara** horreittako bat egitteko asmua eguen, gora-txuago dagueñ Zuazolako presakuaren antzerakua, baiña ha baiño haundixagua. Obriori moduketako hustu zan presapeia, ura Usakoko errotarako malatutik desbideratuta, seguru asko. Eta orduan agertu ziran hor ikusi geiken haitz ikusgarrixok. Gerora harritzar gehixenok kendu egin ziran, orain dala urte batzuk igarilekua zabalketako lanairi ekin otsaiñian. Aittatu dogun amorrain-eskillaria egin, egin zan, baiña akatsen bat baeukan, nunbait. Errotako jabiak, **Migel Enparantzak**, *“horrek etxok asko iraungo”* esan ei eben. Eta halaxe gertatu zan, hurrengo uraundittan bota ebelako errekiak obra guztia.

Fotografixako mutikuak eztittugu danak ezaguketarik izan. Behian eskuman agiri dana Garibaiko errotako **Joxe Mari Lizarralde** da, hori ziur; goixan eskumakua, Upaingo **Juanito Zelaia** izan leike; eta bestion aztarranik eztogu, tamalez, atara ahal izan. Ia baten batek hori jakittekko modurik dakon, edozein modutan be, Zañartu / San Pedro aldekuak izango dira-eta. Eskertuko geunskio. Argazkixa **Dionisio Mugartzak**, Zañartuko izen bereko baserriko semiak, ataratakua da. Donisiok eta bere familiari gerra ostian erloju-dendia euki euen urte askuan Oñatiko Kale Zaharrian. Fotografixa-munduan be jarraitu eben **Patxi Elortzarekin** batera, Kale Zaharrian bertan, beheratxuago.



J.E

Argazkixa Irene Mugartzaren bidez eskuratu dogu. Argibidiak, berriz, Arantxa Enparantza, Juan Zelaia eta Mikel Altunari zor dostegu. Milla esker danoiri!

ETXEBIZITZA BERRIAK OÑATI ERDIAN

*Eraikin berria
bukatzear*

*Maiatzaren 1 Plaza,
2. zenbakian*

*3 logeletako
etxebizitza zabalak*

*Informazioa
eta Salmenta:*

Larrain S.L.

Tel.: 943 21 33 88

www.moyua.com

GRUPO **MOYUA**

Larrain
REAL ESTATE



ENTZUMEN-OSASUN EZIN HOBEAZ GOZATZEA USTE DUZUNA BAINO ERRAZAGOA DA.

GAESen ENTZUMENA DOAN
aztertuko dizugu.

Eta orain gainera entzumen laguntzetan
%20 deskontuarekin



 **GAES**
Entzumen Zentroak
www.gaes.es

* kontuak izan ez diren zentzuan.

Otalora Lizentziatua 18 • Tel.: 943 71 27 93 • **ARRASATE**
Zurradero 10 • Tel.: 943 76 94 55 • **BERGARA**

